

uk

169. zenbakia / 2010eko otsallaren 8a



BARRE barrabarra

VIII. umore jardunaldiak

EUSKARAZETAMOL

Otsailak 13 · 20:00 · Andrés Isasi Musika Eskola
10 € (8€ gazte txartela)

...primeran ari gara, topera, flipatzen. Ikusiko duzue zer egiteko gai garen gure hizkuntzarekin "jarrita" gaudenean. Experimentu zientifiko bat egin dugu, gainera, mega-ikuskitun honetarako behar dugun super-euskera lortzeko: Euskaltzaindiako Liburutegiaren sartuta egon gara hilabete oso batez, artxibadore baten barruan. Azkenengo egunean odola atera ziguten, emanaldi egunetan autotransfusio bat egiteko. Emaiza ikusgarria da, harrigarria.



XABINAITOR

Martxoak 6 · 20:00 · Andrés Isasi Musika Eskola · 10 € (8€ gazte txartela)

WAZEMANK-eko lan-taldearen eskutik.

Superman, Batman, Spiderman...
Superheroi hauen garaia pasa zen.

Orain, gurean... EGA agiria duen
superheroi bakarraren garaia heldu da...

8 urtetik 158 urte
bitartekoentzako antzerki lana...

Geure buruaz barre egirea
bezalakorik ez dagoelako...



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
AHOLKULARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Zuberoa Iturburu, Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurrola, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (94 491 13 37)
KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta



Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaidetza da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



TRATU TXARRIN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Gorliz elurtuta, 2010eko urtarila.
7. LEHEN ETA ORAIN. Armintza.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Mody Gueye.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Aterkiak paperontzietan.
28. ARGAZKIA. Serantes elurtuta, argazki zaharra.
30. BERBETAN. Asier Homaza.
34. FOTOGRAFIA. Raul Hernandez.


KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. 1512, Nafarroako Konkista dokumentala.
43. MUSIKA. badok.info ataria. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Euskarazko liburu digitalak. Erreseinak.
45. KIROLAK. Getxo Sasoi-sasoian sari banaketa.
46. ELKARRIZKETA. Clara Pujalte.

AMAITZEKO

49. NORA JOAN. Solaetxe Jatetxea, Leioa.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Areetako parrokiako haur kantariak, 1943.
54. AITORMENAK. Xabier Perurena.

Azala: Asier Mentxaka




30 Asier Homaza

Berbetan

Urte andana daroaz getxoztarrak antzezpen munduan; *Dragoi ehiztaria* filman protagonistaren rola bete du



11 Mody Gueye



54 Xabier Perurena

MÉGANE EMOTION

85cv dCi

10.600€*



1.000€-ko
deskontua
aukerako edozein
ibilgailu
erostean**

ZUK DENA NAHI DUZULAKO

RENAULT
OCASIÓN

* PSP transferentzi gastuak barne. Ikustaraziko eta eskaintzako bertsioak desberdinak izan daitezke. ** 10 urte baino gehiagoko kotxea uztean.

BILBO BERRI BIZKERRE, 3. GETXO. TELÉFONO: 94 430 68 81 www.bilboberri.com



Leihatila

> Pedro Garcia Larragan

Aldaketak

Bigarren munduko gerratearen ostean, gizarte modernoan garapena zutabe bitan oinarritu izan da: bankuak eta autoa. Lehenek, ...dirua zabaltzen. Bigarrenek, industria eta enplegua sortzen, beste ekonomia jarduerak lortu ez duena. Eta biak aldatzen ari dira, neurri handi batean, krisiagatik. Beharbada guretzat nabariena izango da hemendik aurrera beribiletan igarriko ditugun aldaketak. Zerbait mugitzen ari da automozio munduan. Euskal erakundeak eta punta puntako enpresak beribil elektrikoa bultzatzen ari dira. Azkenengo adibidea, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Iberdrolak sinatutako akordioa. Helburua, ... automobil elektrikoaren bidegarritasuna erakustea. Galdera asko dago erantzuteko oraindino: zelan kargatu bateriak? Nola helarazi hainbeste argindar horrenbeste beribiletara?... e.a. Adituek onartzen dute erronka zaila dela, baina aldi berean, zirrargarria. Eta gauza batean behintzat ados daude: ez dakite guk, baina gure seme-alabek automobil elektrikoak gidatuko dituzte. Prest gaude aldaketarako?

gu geu**Kalean gora, kalean behera**

Aratusteak: gura duzunaren (izan animalia, super-heroia, munstroa edo gizakia) azalean jartzeko aukera ematen duen jai koloretsua. Euskal Herrian indar handiz ospatzen dira, batez ere, Lantz, Mundaka, Ituren edo Tolosa bezalako herrietan. Gurean arropa geruza asko jantzi behar izaten ditugu soinean, hotzetik babesteko; itsasoz bestaldean ostera, Brasilen barbarako, arropa erantsita sanbodoromoan gerria mugitzen ibiltzen diren gizon-emakumeak izaten dira protagonista.

Aratusteetan gurea ez den nortasuna, geure egiten dugu. Hori da, hain zuzen ere, Asier Hormaza aktore getxoztarrak Kuba aldean egin duena. Udabarrian estreinatuko dute zeresana emango duen *Dragoi ehiztaria* filma; horri buruz zein esku artean dituen beste proiektu batzuei buruz irakurri ahal izango duzu *Berbetan* atalean.

Aktore eta antzerki munduaz berba egin digu Clara Pujaltek ere. *Inside Maps* proiektua garatu dute Alemanian, ekimen barrizalea benetan.

Eta antzerkia alde batera utzi barik, Getxoko Euskara Zerbitzuak antzerki lan bi ekarriko ditu otsailean eta martxoan VIII. Umore jardunaldien barruan.

Emanaldia hastera doa!

Iritzia

Santa Ageda bezperan, herrietako kaleak kantuz eta makil kolpe hotsez bete ziren. Ohitura horren inguruan hausnartu du Gabi Basañezek.

Agedaren udabarri zantzooa

Makina bat bider ibili izan gara Ageda eskeko moduan, bazterrik bazter. Gainera, ibilaldi horietan zer edo zer ikasteko aukera parajetu zaigu: geure aurretik soldaduskara joan beharrean zirenak urtetan zirela kantari, ohitura izan dela hainbat txokotan anpurre-

«Zer dela eta makilaz lurra jotze hori?»

martirioak kantatzen zirela sasoi batean, kanta ala erreza? Esaten ei zela baserri aurre-ra ailegakeran...

Berez nahiko nontzeberria naizenez, Ageda bezperan eskeko ibiltzearen inguruko horretaz beti izan dut galdera bat bueltaka: Zer dela eta makilaz lurra jotze hori? Han hemen esan dizkidatenak ez naute ase: erri-moa hobeto eroateko behin pentsatutakoa izango zela, politagoa egiteko, horrela izan delako beti... Zaharren artean galdetuta ere ez dut lasai utzi nauen erantzunik.

Bai ostera, asfaltoko kultura sasoi globalizatu honetan kontrakarran datozen gazte batzuen aldetik. Ez kasualidadez, inguruotako euskara, musika, berezko kulturaren edaten duten gazteen aldetik baizik. Badakizue zer dioten? Bada, lurra izartzeko dela makilak jotze hori, lurra izartzeko. Halakorik!

Neuri baina sano logikoa iruditu, barrua lasaitu eta kitzikagarri zaizkidan beste hainbeste pentsamendutara naramana. Lurra, Ama Lurra laztandu izartu dadin. Hain txarto jagoten dugun Ama behingoz apur bat maitasunez esan: Aupa Amatxu, sasoi ona duzu izartzeko, zurruna lez egon zara deskantsuan, ezta? Ea bada, zeure beharrean gaude eta hator Ama, hator geure Amatxo. Heure beharrean gagozan eta.

Zoritxarez aspalditik datorren ideia da natura goberna ez ezik esplotatu ere egin behar dela. Honela gertatzen da, zementua jotzen dugula makilaz eta poltsari baino ez diogula begiratzen, ea dirurik utzi duten edo ez. Kantariak ikusi eta melodia ondo daratzen edo ez belarri aldetik. Gehienek ere, oraindino, ezin ulertu hitzak diona.

Mimosak eta arkaziak kimutxoak er-natzen dituzten lehenengoetakoak dira. Agedaren egunaren inguruan ernatzen hasi gainera. Honela izanda ere, telebistagaz bizi garenok, eta ez inguruagaz, jarraituko dugu esaten udabarria martxoan hasten dela.

Halandaze, gazte mitiko horietako bat ez bazara ere, kantuan eta makilagaz ttakun eta ttakun ibiliko zarenean, isilean bada ere, bota aupadatxo bat gure Ama Lurrari. Ama da jagon behar dugun pertsona garrantzi-tsuenetakoa. Ez ahaztu.

Agur leie eta edurre tristezi eta bildurre izartzeko da gure laguntzaz lotan dagon Ama Lurre. Ieup!!!

Gabi Basañez
(Euskaltzale internazionalista)



GORLIZ, 2010EKO URTARRILAREN 10A

Elurra mara-mara! Itsasora arte heldu zen elurra urtarilaren 10ean. Cabo Villanoko (Gorliz) itsasargiaren atzealdean aurkitu genuen argazkiko emakumea, itsasoaren edertasunaz gozatzen. Bixia da elurrak gurean sortzen duen efektua. Kaleetatik zein errepedeetatik mugitzeak dakarren duen arriskuak, etxean gelditzera bultzatu beharko gintuzke. Hori gertatu beharrean, lera, argazki kamera, plastikoa zein zabor poltsa hartuta, kalera urten eta edozein malda txiki bilatzen dugu ipurkada galantak hartzeko. Elurra ondo etorria izatea, gutxi ikusten dugun seinale da; galde iczaiozu euriari bestela. O / Argazkia: Asier Mentxaka

“Getxo akordaten naz”

dokumentala azpigituluakaz

Azken aleak!

**Zatoz UK-ren bulegora*,
eskatu eta
eroan musutruk!**

* Bulego ordutegia:
10:00-14:00 / 16:00-18:00
Amezti 6, 4. solairua / 5. bulegoa
Algorta (Getxo)



Uribe Kostako aldizkariaren ekoizpena



INDALECO OLAGUEREN



ASIER MENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / ARMINTZA, 1960

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > irudi hutsalak



2009ko abendua, Algortako azoka

Testua: **Itxaso Paia**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

1

Argiaren alaba,
Kontraste musua,
Sarri ikusezina,
Aspaldi itsua,
Silueta mugikor
Mutu berritsua,
Helduen bakardade,
Umeen izua,
Zergatik zara horren
Misteriotsua?

2

Argiztatu orduko
Ekhiaren balak
Kalerik ilunenen
Espaloi zabalak
Beltzez dantzan dabilta
Irudi hutsalak
Inbidi(a)tan, ordea,
Ale bertikalak
Garenaren eklipse
Bat dira itzalak.

3

Ilunpearen ikur,
Herio olerki,
Sentipenen pareko
Platonen antzerki...
Jendeak beldurgarri
Aurkitzen du beti;
Bere harira zertan
Susmoak izeki
Iguar uler nezake
Hizketan baleki!

* Doinua: Hamalau heriotzena

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidali
iezaguzu atal honetan agertzea gura
zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu,
bertso eta guzti!
uk@aldizkaria.biz

euskara > umeak D ereduan matrikulatzeko kanpaina eskualdean



Leioako Artaza eskola

“D bitamina. Aberastu bere heziketa!”
kanpaina abiatu dute gurean, bi eta hiru urteko
umeak D ereduan matrikulatzea sustatzeko. Uribe
Kostako Mankomunitateko herriak, Leioa eta
Erandio parte hartzen dabilta Alkarbideren
ekimenean (Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaiko
hainbat Udaletako euskara zerbitzuek osatzen dute
Alkarbide). Orain arte, B eta D ereduetan izena
emateko kanpainak egin ditu Alkarbidek. Orotara
herrialdeko 45 Udalek bat egin dute ekimenagaz
eta informazio-kanpainari ekin diote. Horretarako,
liburuxkak atera dituzte. Bertan, ume txikien
gurasoei azaltzen diete hezkuntzako D eredia zer
den eta zein arrazoi dagoen euskarazko eredia
aukeratzeko, matrikulazio kanpaina abiatu baino
lehen. Udal-arduradunen gutun bana eta
umeentzako altura-neurgailua jasoko dute
gurasoek liburuagaz batera, seme-alaben
“*hazkundera eta bilakaera islatuko duena*”. ○

topatu.info > atari barria dauka gazte mugimenduak interneten



Zestoako gazte topaketetan parte hartzera deitzeko irudietako bat

Gaztesareak, gazte mugimenduaren atariak,
agur esan zuen urtarilean. Madrilgo Entzutegi
Nazionalak haren aurka abiatu auziak ezinezko
bihurtu du ataria lanean mantentzea. Baina gazte
mugimenduak dagoeneko badauka elkargune
barria, “*bere ekimenean barri lau haizetara
zabaltzeko*”: topatu.info. Abenduan Zestoan
gauzatu gazte topaketan filosofiagaz bat egin eta
interneteko gune barria abiatu dute. Bertan
azaltzen dutenez, “*Euskal Herriko gazteek elkarren
barri jakiteko parada eta elkarrengandik ikaste
abagunea*” izango dute gune horretan,
“*esperientziak trukatzeko gunea izateko helburuagaz
jaio*” da eta. Beraien arteko komunikazio zubiak
eraiki gura dituzte atariaren bitartez. Beharrari
ekiteko prest dira, eta ez dukate lan makala! ○

saiazgetaria



HOTELA

Rake Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



...harria

...lehengo garaia...

...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

inauteriak > mozorroa aukeratu barik daukazu oraindino?

Otsailaren 21era arte luzatuko dira aurten karnabalak eskualdean

Baduzu garaia ohiko kareta kentzeko eta benetako mozorroa janzteko, inauteriak bertan daude eta! Gabonak oraindino gogoan eta dagoeneko negua amaitzen ari da. Horixe ospatuko dugu datozen asteburuotan, inauterietan. Entzun dugu Zubietako eta Iturengo joaldunen deia, eta Zuberoko Maskaraden zurrumurrua iritsi da Euskal Herriko beste punta honetara. Dagoeneko ez dago atzera egiterik, aratusteak, karnabalak... inauteriak hasi dira eta ospakizunean zein festan murgiltzeko irrikan gaude. Aste akabu honetan, otsailaren 12tik 16ra bitartean dira hitzorduak Erandio Goikoan eta Altzagan, Barrikan, Leioan, Gorrizen, Sopelan, Romon eta Plentzian; data "ofizialetik" kanpo ekingo diote ospakizunari, ordea, Berangon, Astrabuduan edota Algortan, datorren asteburuan hain zuzen ere, hilaren 19tik 21era. Eta ez dira gutxi antolatutako ekitaldiak, urtetik urtera osasun hobea daukate eskualdeko karnabalek. Beraz, dagoeneko mozorroari azken ukituak ematen ibiliko zara, edo zer jantzi pentsatu barik oraindino. Batzuk hala ibiltzen baitzarete, azken unean topatutako zer edozer jarri eta kalera; halere, badira sormen handiko pertsonak ere, eta horren berandu ibili arren, mozorrorik originalenak egitea lortzen dute. Dagoeneko zurea aukeratu duzu? ○

Ekitaldiak**SOPELANA**

- **Umeen desfilea:** 02-12, 09:30etik aurrera.
- **Umeentzakoak:** 02-13. Pilotalekuan.
- **Disko-jaia:** 02-14, 17:30ean. Pilotalekuan.

BARRIKA

- **Diskoteka:** 02-15, 17:30etik aurrera.

PLENTZIA

- **Desfilea, txokolatea eta disko-jaia:** 02-20, 17:00etan. Astillerotik pilotalekura.

LEIOA

- **Umeentzakoak:** 02-12, 17:00etan. Euskal Etxeen plazan. Maritxu Teilagorriren eskutik.
- **Mozorro lehiaketa eta erromeria:** 02-12, 21:00etatik aurrera. Ikea Barri plazan.

GORLIZ

- **Kalejira eta txokolatea:** 02-13, 18:30ean.
- **Umeentzako ludoteka:** 02-15 eta 16, goizez. Kultur Etxean.

ERANDIO

- **Lantzeko inauteria:** 02-13. Goikoan.
- **Umeentzako jarduerak:** 02-13, Altzagan. 02-20 eta 21, Astrabuduan.
- **Nagusientzako jarduerak:** 02-13, 20:30ean, Altzagan. 02-20, 21:30ean Astrabuduan.

BERANGO

- **Kalejira eta berbena:** 02-20, 18:30ean.
- **Maskarada:** 02-21, 11:15etik aurrera, auzoetan zehar. Dantza taldearen ekimenez.

GETXO

- **Eskola inauteriak:** 02-12, goizez.
- **Romoko inauteriak:** 02-13, plazan.
- **Algortako inauteriak:** 02-12 eta 13.
- **Errepikapena Algortan:** 02-19 eta 20.



"Senegalen hemengo telebista kateak ikusten nituen, bizimoduaz gehiago jakiteko"

Mody Gueye Pablo > guztiok ezagun, guztion lagun

Tabernan sartzean denbora behar izaten du Mody Gueyek ezagun guztiak agurtzeko; lagun talde batetik bestera ibiltzen da, irribarrea ahoan, guztiak agurtu arte. Getxo aldean *Pablo* ezizenez ezagutzen dute gehienek: "Errazagoa da". Senegaleko iparraldean dagoen Luoga herritik etorri zen orain lau urte, 18 urte zituenean: "Hasieran familia faltan somatzen nuen, baina erraz moldatu nintzen". Gurera heldu aurretik, bazekien gutxi gorabehera zer aurkituko zuen: "Senegalen hemengo telebista kateak ikusten nituen, bizimoduaz gehiago jakiteko". Beharrean ordu asko ematen ditu, baina, denbora duenean, ikastea du gustuko: "Soldatzailea izan gura luke, horretarako ikasten ari naiz". Ez du gaztelera menperatzen eta euskara "apur bat" baino ez daki; hori ez da oztopo herriko gazte zein ez hain gazteen lagun izateko: "Jendea gustuko dut, jatorra da. Ni zintzoa naiz eurek ez eta, horregatik, ondo moldatzen gara. Jende gaiztoa ere badago, nahiz eta gutxi izan; horiek ez zaizkit batere gustatzen". Gogoko dutela adierazteko, opariak egin dizkiote behin baino gehiagotan: "Gauza asko oparitu dizkidate: koadro bat, arropa, txapela e.a.". Epe motzean ez dauka sorterrira itzultzeko asmorik: "Bisitlan joan gura dut, baina bueltatuko naiz". Senegaleko musika entzuten utzi dugu Mody Gueye, tinbal hotsen artean. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

AreetanVilla de Plentzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Aurrekontuak krisiaren menpe

88.000.000 euroko aurrekontua onartu zuten 2009ko azken udalbatzan **EAJren eta PSEko** zinegotzi biren aldeko bozkei esker; zergak blokeatu eta inbertsioak mantentzen saiatuko dira

Krisia da aurrekontuen protagonista beste urte batez. 2009koa baino %12 txikiagoa da aurtengoa, diru-sarrerek nabarmen egin baitute behera. Udala inbertsio-maila goian mantentzen saiatuko da; Getxo Antzokia, Santa Eugeniako Kultur Etxea eta Hiri Antolamendurako Plan Orokorra dira inbertsio estrategikoaren zutabe nagusiak.

Krisi ekonomikoak ez du etenik eta 2010eko aurrekontuen protagonista izan da. Joan den urteko azken udalbatzan onartu zituzten aurrekontuak EAJko zinegotzi guztien eta PSEko zinegotzi biren aldeko botoagaz; PPK eta Alternatibak kontrako botoa eman zuten, eta PSEko beste zinegotzi biak abstenitu egin ziren. Guztira, 88.659.689 euroko aurrekontua izango du Getxoko Udalak aurton, joan den urtekoa baino %12 txikiagoa.

Diru sarrerek nabarmen egin dute behera eta horrek aurrekontua murriztea ekarri du. Tasak eta zergak blokeatu eta kasu batzuetan murriztu egin dira, eta horrek sarrera arruntak behera egitea suposatu du; kapitaleko sarrerek ere, beherakada izan dute, 6.000.000 eurotik 2.500.000 eurora pasa dira.

Dirua sartzen ez denez, gutxiago gastatu behar izango du Udalak 2010ean. Gastu arruntetan beherakada egon da (%11,7). Atal honi dagokionez, aipatu beharra dago, Imanol Landak, alkatearen soldata zein zinegotziarena bere horretan



Getxo Antzokia Udalaren inbertsio estrategikoetako bat da

mantentzeko proposamena aurkeztu zuela urtarilaren 29ko udalbatzan: *“Udal aurrekontuaren %12ko murrizketagaz, eta orokorrean, bizi dugun egoera zailean gerrikoa estutu behar genuela esan genuen eta horrela egingo dugu,*

«EAJko zinegotzi guztien eta PSEko zinegotzi biren botoagaz onartu ziren 2010eko aurrekontuak,»

baita alkatearen eta udal zinegotzien soldatei dagokienez ere”.

Kapital gastuak %50 murriztu dituzte. Hala ere, *“inbertsio maila mantentzen saiatu”* direla adierazi dute Udaletik, horretarako *“eskura”* dituzten baliabide guztiak erabiliz. Getxo Antzokia, Romoko Kultur Etxea eta Hiri An-

tolamendurako Plan Orokorra inbertsio estrategikoak izango dira; bestalde, herriko enpresak eta dendak bultzatzen saiatuko dira. Elkartegintzari emandako diru-laguntzak bere horretan mantenduko dituzte.

Udalaren Erakunde Autonomoiei dagokienez, Kultur Etxeak 6.500.000, Getxo Kirolakek 5.500.500, Egoitzak 5.000.000, Musika Eskolak 2.400.000 eta Kirol Portuak 300.000 euro erango dituzte. ○

Datu batzuk

- **%12:** aurrekontuan behera egin
- **%11,7:** gastu arruntek behera egin
- **% 3,4:** Gizarte Zerbitzuek gora egin
- **%50:** kapital gastuak murriztu

Hiri diseinua birplanteatu

dute genero ikuspegitik, “gune beltzak” ekiditeko



Villa de Plentziako pasabideetako argiztapena hobetzen saiatuko dira

Emakumeek segurutzat jotzen ez dituzten herriko txokoak aldatzeko, zenbait ekintza erango ditu aurrera Getxoko Udalak. Horiek identifikatzeko eta bete beharreko baldintzak definitzeko, udalerriko emakume batzuk, HIRIA KOLEKTIBOA emakume arkitektoen elkartera eta udaleko sail desberdinetako teknikariak elkarlanean aritu dira hiru tailerretan. Aldaketa urbanistikoak, argiztapen azterketak eta lorezaintza jarduerak dira aurrera eroan beharreko ekintzetako batzuk.

Urtarrilean aurkeztutako diagnostikoak, emakumeek seguruak sentitzen ez dituzten leku batzuk jasotzen ditu, nahiz eta horrek ez duen esan gura istiluen kopurua handia izan denik gune horietan. Alangoko Osasun Zentroko aparka-

lekua, Aiboako geltokiko sarbideak, Areneondo-Euskal Herria arteko lurpeko pasabidea, Villa de Plentziako pasabideak, Andra Mari eliza ingurua eta Salsidu kalea dira txostenean aipatutako guneak. Horietan, ikuspena oztopatzen duen landaretza moztu, argiztapena hobetu eta oinezkoentzako pasabideak egokitu dituzte. Areneondo eta Euskal Herria kaleen arteko lurpeko pasabideari dagokionez, ingeniariak sailak zail ikusten du goiko pasabide bategatik ordezkatzeko, metroko alde bien arteko desnibela handia baita. Hala ere, argiztapena hobetzea eta arrapalak ipintzea aurreikusi dute. Salsidu kalea, ardatz egituratzaila moduan mantendu eta lonjak etxebizitza ez bihurtzeko arautegi barria onartu dute. ○

METROA LURPERATZEKO LANAK APIRILEAN HASIKO DIRA

Garraio Partzuergoak apirilean, Aste Santuko oporretan, hasiko ditu Maidagan inguruan metroa lurperatzeko lanak. Andra Mari auzoan aurrera erosten ari diren lanen bigarren fasea da; lehenengoa 2008an hasi zen, Bidezabal eta Berango artean eraikitzen ari diren Ibarbengoa metro geltokiagaz. Lurperatzea 300 metrotan zehar egingo da, bihurtzeko dagoen lekuan. Lanek irauten duten bitartean, oinezkoentzako pasabidea ipiniko dute pasonibelaren gainetik. 36 milioi euroko inbertsioa aurreikusi dute.

UMEENTZAKO JOLAS EGOKITUEN LEHENENGO GUNEA AREETAN

Gutxitasun fisikoa duten umeentzako jolas gune barria jarri du Udalak Areetako Eskoletako plazan. Udalerrian baldintza horiek betetzen dituen lehenengoa da. Jokoen garaiera eta azalera egokitu dituzte elbarriak diren neska-mutilek, zein gurgildun aulkian doazenez erabil dezaten. Ekimena, Udalak irisgarritasunaren alde egin duen apustuaren harira dator; hurrengo urratsa, Algortan gune bat egokitzea izango da. FEKOOR-Gutxitasun fisikoa duten pertsonen Bizkaiko Federazioak, Udalaren ekimena eskertu du.

EZ DUTE BOTAKO EREAGAKO “LA TERRAZA” ERAIKINA

Urtarrilean jakinarazitakoaren arabera, Udalak Ereagako “La Terraza” eraikina ez botatzeko erabakia hartu du. Lehiaketa publikora aterako dute lokalaren kudeaketa, urtarrilean orain arte beharrean egon den gizonak erretiroa hartu baitu 2010eko urtarilaren 3an. EAJk eraikina botatzeko eta horren ordez turismo bulegoa hartuko zuen erabilera anitzeko eraikina altxatzeko erabakia alde batera utzi du. Hala ere, kontzesioa urte baterako izango dela aurreratu dute.

Etxeart

Eraikuntza / Barrikuntzak
Zurezko Egiturak

Sagastkoetxe Industrialdea
Etxalde 2 - Pablori 11
48630 Gorliz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144



<http://www.etxeart.com>

Marina Goñi > *Getxo marka sortuaz turismoa sustatzeko lehiaketako irabazlea*

“Herriko hiru faktore islatu ditut: itsas eta baserri giroa eta izen handiko eraikinak”



Marina Goñi

Herriko turismoari bultzadatxoa emateko asmoz, Getxo marka sortzeko lehiaketa antolatu zuen Udalak joan den urtearen amaieran. Maria Goñi gazte algortarrak lortu zuen lehenengo saria. Herriko hiru eraikin esanguratsu dira Goñiren diseinuaren protagonista: Bizkaiko Zubia, Aixerrota eta Galeako itsasargia. Laster, kamisetetan, arkatzetan eta turismo bulegoak banatzen dituen beste produktuetan ikusiko dugu.

—Zergatik animatu zinen lehiaketan parte hartzera?

—Egia esan, ez naiz oso lehiaketa zalea, baina interesgarria iruditu zitzaidan. Arte Ederrak ikasi eta gero identitate korporatiboen inguruko masterra egin nuen Bartzelonan. Diseinuaren munduan hori da gustukoena dudana, marken diseinua. Getxokoa naiz eta polita iruditu zitzaidan nire herria ordezkatzeko balio duen marka diseinatzea.

—Zertan oinarritu zara?

—Herriko hiru toki adierazgarri hartu ditut oinarritzat: Aixerrota, Bizkaiko

Zubia eta Galeako itsasargia. Getxoko hiru alde adierazgarrienak ordezkatzen dituzte: baserri giroa, itsas giroa eta izen handiko eraikinak, alde turistikoena (zubia, jauregiak e.a.). Sinadura formatua eman diot, hurbilagoa gerta dadin; sinaduratik bertatik ateratzen dira aukeratuak hiru eraikinak.

—Zaila egin zaizu Getxorako diseinua aukeratzea?

—Faktore biren eraginpean egon naiz. Alde batetik, ez dut ikertu behar izan, hemengo naizelako, herrikoa. Hori abantaila izan da. Bestalde, kontuan

izan behar dut diseinua ez dela herriko jendearentzat, kanpotarrentzat baizik. Badaude guk, bertokook, berezkoz ditugun gauzak, baina kanpokoek ulertzen ez dituztenak. Faktore biak uztartu behar izan ditut. Honez gain, euskarri askotan erabili ahal dela erakusteko, egokitu behar izan dut; umeentzako arkatz sinple batean, zein erloju sofistikatuago batean aplikatu dut.

—Material birziklatuak erabili dituzu, zergatik?

—Diseinatzaileok gizartea kontzientziatzeko ardura daukagula uste dut,

«Diseinatzaileok gizartea kontzientziatzeko ardura ere badaukagula uste dut»

eragin txikia izango badu ere. Getxoko Udalak ingurugiroa zaintzeko zenbait ekimen garatu ditu azken urtean: erosketak egiteko telazko poltsak banatu, bizilagunei mezuak posta elektronikoz bidaltzen hasiko dira e.a. Hortik jarraitzeko eta Udalaren politikagaz bat egiteko material birziklatuak erabiltzea erabaki nuen. Kanpotarrei zer garen erakutsi behar diegu.

—Zelan ikusten duzu diseinuaren mundua?

—Konpetentzia handia dago. Nik marketan espezializatu gura dut, marken estrategian. Gaur egun, enpresa handiek egiten dute hori Bartzelonan eta Madrilen. Multinazionalek ematen duten zerbitzua enpresa txikiei eskaini gura diet. Horretarako nire estudioa sortzen nabil eta zenbait proiektu ditut esku artean. Garrantzia ematen diot diseinua egin aurreko prozesuari; ondo ikusi behar da bezeroak zer behar duen helburuak lortzeko. ○

Barrez lehertzeko

aukera egongo da **otsailan eta martxoan VIII. Umore Jardunaldietan**



Euskarazetamol antzezlanak ikusi ahal izango da otsailaren 13an

Barre egiteak bizi itxaropena luzatzen duela entzun dugu behin baino gehiagotan. Bada, Getxoko Euskara Zerbitzuak eta Kultur Etxeak elkarlanean antolatu duten ekimenak barrez lehertzeko aukera emango dizu. *Barrebarrabarra VIII. umore jardunaldiek*, umore antzezlan bi ekarriko dituzte Andres Isasi Musika Eskolara.

Hilaren 13an, arrastiko 20:00etan, EZ DOK HIRU Bikoteatroa bikote artistikoaren trilogiaren azken alea egongo da ikusgai: *Euskarazetamol*. Hizkuntzagaz “jarrira” daudenean zer egiteko gai diren erakutsiko digute Patxo Telleriak

eta Mikel Martinezek.

Martxoaren 6an, Wazemank ETB 1eko saioko aktoreek *Xabinaitor* antzezlanak ekarriko dute. Patxi Gallego marrazkilari gipuzkoarrak asmatutako super heroien bizipenetan oinarritutakoa. Anjel Alkain eta Mikel Pagadizabal protagonistak, super heroien atzetik doan ertzainaren eta Xabinaitor super heroien papera egingo dute, hurrenez hurren.

Sarrerak, egunean bertan leihatilatan, zein alde aurretik BBK-ko kutxazainetan erosi ahalko dira duzu 10 euroan (8 euro gazte txartelagaz). ○

GAZTEENTZAKO TAILERRAK EKAINA ARTE

Gazteei zuzendutako zortzi tailer eskainiko ditu Gazteria Udal Zerbitzuak otsailtik ekainera. Barritasun bezala, txalo tailerra eta kamera estenoipekoa egiteko tailerra izango dira aurten. Horrez gain, makillajea, sukaldaritza, perkusioa, magia eta surfa landuko dituzte tailerretan. 10 eta 30 urte bitarteko gazteek hartu ahal izango dute parte 5 euroren truke. Perkusio, surf, txalo eta makillaje tailerrak euskaraz izango dira; gainontzekoak gaztekeraz. Izena emateko, bost bide dago: posta elektronikoen bidez (gaztebulgoa@getxo.net), SMS bat bidaliz (667 600 740), www.getxo.net web gunean, Gazte Bulegora hurrez (Algortako Etorbidea 98) edo 94 466 03 53 telefonora deituz.

ANTZOKIKO LANEKIKO DESADOSTASUNA

San Nikolas Auzo Elkarteak Getxo Antzoki barria eraikitzeke lanekiko desadostasuna adierazi du bere blogean. Lanak jaso zirenetik plaza inguruan lapurretak eta bortxaketa saiakerak gertatu direla diote San Nikolaseko auzokideek. Udalarai, “gertaeren aurrean ezkutetzea” leporatzen diote. Bestalde, eraikin barriaren dimentsioak eta kokapenagaz ados ez daudela adierazi dute; blogean irakurri daitekeen arabera, Obispo Etxeandia kaleko 2. zenbakiko auzokideek, administrazioarekiko auzi-helegitea aurkeztu dute.

Informazio gehiago:
<http://antzokisiperoasino.blogspot.com>

NEGUKO BIDAIA KONTZERTUEN AZKENA

Neguko bidaiak kontzertu-hitzaldi zikloari amaiera emateko, Quiroga harizko laukotea egongo da hilaren 12an Andres Isasi Musika Eskolan, arrastiko 19:15ean. Kontzertuak ordu beteko iraupena izango du; hasieran, sarrera egingo dute eta ondoren mintzaldia. Azken horretan, entzuleek euren iritziaz edo galderakaz parte hartu ahal izango dute.

lagusana
libros y letra pequeña

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
lagusana@lagusana.net

Pedro Alegria > Matematika Olinpiadako antolatzailea

“Matematika gustuko dutenak elkartu gura ditugu, etorkizuneko zientzialariak dira eta”

la bost hamarkada daramate Matematika Olinpiada ospatzen Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako kanpusean. Batxillergoko ikasleen arteko lehia da eta urtarrilean burutu dute 46. edizioa. Pedro Alegria EHUKo matematika irakasleak antolatu ohi du, beste lagun batzuekz batera.



Zientzia Fakultatean irakasle da Pedro Alegria

—Urte asko olinpiada bereziok egiten. —Matematikakoak izan ziren zientzia arloko lehenak, aintzinakoak dira. Leioako kanpusean egiten dugu Euskal Autonomia Erkidegokoa. Unibertsitate distrito bakoitzak egiten du bere kanporaketa, eta ondoren jokatzeko dira nazionala eta nazioartekoak.

—Zertan datza?

—Saio bi egin ohi ditugu, bakoitza hiru ordukoa, eta hiru buruketa proposatzen dugu. Ez dira ohiko buruketak, eskolan egiten diren modukoak. Beste osagai batzuk dauzkate, buru-argitasuna eskatzen dutenak... matematikarako dohaina daukanari otu dakizkiokeen ideiak behar dira buruketok askatzeko. Horregatik ematen zaie horrenbeste denbora probak egiteko. Horrek ez du esan gura teknika behar ez denik. Edonork uler ditzake,

baina edozeinek ez du zertan askatzen jakin. Sormena, trebetasuna eta konstantzia beharrezkoak dira.

—Zein helburugaz antolatu ohi duzue?

—Kirolaririk onenak bilatzen diren olinpiaden moduan, zientzialaririk onenak bilatzen dituztenak ere badaude. Mundu mugatuagoa eta ezezagunagoa denez, baztertuago egon daiteke. Matematika gustuko duten klaseko “arraroak” bildu eta zaletasun bereko

pertsonakaz elkartu gura ditugu, etorkizuneko zientzialariak dira eta. Bestalde, matematika bigarren mailako gaitzat eduki ohi dute, eta ez dugu debaluatzerik gura. Matematika gustuko dutenek, ikasketok burutzeko aukera kontuan izan dezaten lortzen gabilta. Beste kontu bat da gero karrera ikasi edo ez, baina kontuan har dezatela behintzat. Besteak bezalako lanbidea da, eta gustuko duenak, zergatik ez du bada ikasiko? ○

Dibertitzeko tartea

egongo da hilabete honetan **Perseo Zineforumen; komedia zikloa** abiatu dute



Woody Allen zinemagilearen *Si la cosa funciona* filmea emango dute martxoaren 2an

Urrian ekin zioten ikasturte honetako Perseo Zineforumari Kultur Leioan, eta hil honetan, komedia zikloa eskaintzen dabilta. Hilero gai bat aukeratu ohi dute eta hari buruzko filmeak eman.

Frantziako zinemari buruz aritu ziren urrian, eta argentinarragaz gertatu moduan, “*beti oso ondo hartzen dute ikusentzuleek*”, esan dute Perseo Zineforumaren antolatzaileek. Azaroan, barriz, emakumeek zuzendutako pelikula eman zituzten.

Ziklo biziaren ondoren, ikusleek komedia eskatu ohi dutela azaldu dute, horregatik aukeratu dute gai hori. Ikusleen iritzari kasu handia egiten diote. Adibidez, zuzendari jakin baten

filmeak gustuko badituzte, haren lanak bilatzen saiatzen dira. Gauza bera gertatzen da gairen bat gustuko izanez gero; horra hor zineforumaren “*arrakasta*”.

Otsailan, beraz, hiru pelikula eskainiko dute, eta beste bat geratuko da martxorako. Lehena botako dute hilaren 9an, *Un novio para mi mujer* argentinarra. Kultur Leioako Auditoriumen eta 20:00etan izango da, betiko legez. Bigarrena otsailaren 16an emango dute, *Ex* da izenburua eta italiarra da. *Semen* espainiarra, ordea, hilaren 23an izango da; eta azkena, *Si la cosa funciona* estatubatuarra, martxoaren 2an. Barrez lehertzeko prest? ○

PREST DAGO 2010EKO UDAL-AURREKONTUA

Guztira 36,2 milioi eurokoa izango da Udalaren aurtengo aurrekontua. Abenduko Osoko Bilkuran onartu zuten EAJren eta EBren aldeko bozakaz. PPK kontra bozkatu zuen eta PSE-EE abstenitu zen. Aurrekontuaren barnean daude Euskararen Erakundeari eta Soinu Atadia Fundazioaren (Udal Musika Eskola eta Kontserbatorioa) aurrekontua. Aurten gainera, udaltzain kopurua igotzeko gorde dute 2,3 milioi euro; horrenbestez, 36 polizi izango du Udalak, orain arte baino 6 gehiago. Bestalde, Hezkuntza, Formakuntza eta Enpleguari bideratuko dizkiote 3,5 milioi euro, Gizarte Ekintzari moduan. Inbertsioentzako 4 milioi euro gorde dute, eta beste 9 herriko garbiketa eta mantenurako. 2010ean ere, Garapenerako Lankidetzara bideratuko du aurrekontuaren %0,7, eta iaz egin bezala, udal agintarien soldata izoztu du.

KULTURA, KIROLA ETA ASTIRAKO LAGUNTZAK

Kultura, kirola eta astialdirako ohiko dirulaguntzak emateko deialdia zabaldu du Udalaren Kirol eta Kultura sailak. Eskabideak otsailaren 26a baino lehen aurkeztu behar dira Udalaren Erregistro Nagusian, edota Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan azaldutako lekuren batean.

Informazio gehiago: www.leioa.net

POP ROCK LEHIAKETAK HAMAR URTE

Dagoeneko maketak bidal daitezke Leioako Pop Rock lehiaketan parte hartzeko, Aterpe Gazte Bulegora (Kultur Leioa). Bost abestik osatu behar dute maketa, eta martxoaren 12ra arte aurkez daitezke. Izenemate orria Kultur Leioako webgunean topa daiteke, eta informazioa gura izanez gero, Aterpera dei daiteke: 94 607 25 72.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO
ERROTULUAK eta
INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

e-mail: hirutab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

BASTARTEA
URDULIZ
Teléfono: 946 761 128

Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

OSABIDE HORTZ KLINIKAZ
Arantza Etxebarria
• Odontologia orokorra
• Orodontzia
• Periodontzia
• PADI
Bidebarr 27, beheko eskina
ALGORTA
94.430.76.96

[erandio]

Juan Jose Alonso > *Guayas* liburua egilea

“Susma ezin daitekeen jarduera bizi zuen errekek garai hartan, ibai osoa portua zen”

Zelaia Ontziolako zuzendari-gerentea izan zen Juan Jose Alonso 1974tik 1988ra. Eskola-ontziak egiteko enkargu asko jaso zuen, Guayas belaontzia tartean. Anekdotak hartatik abiatuz Erandioko ontziolen historia ere kontatu du Alonsok, sasoi hura talde-oroimenetik galdu baino lehen.

—Guayas ontzia izan da liburua idazteko arrazoia.

—Erandioko alkateak eta Bilbon Ekuadorrek daukan kontsulak eskatu zidaten ontziari buruz idazteko, herrialde haren enkarguz eraiki baikenuen. Baina nik proposatu nien pasadizo hartatik haratago idaztea. Guayas 1977an amaitu genuen, Erandioko ontzigitza-erentzako garai oso oparoa. Lau hamarkada lehenago zabaldu zuten hainbat ontziola eta 50 urte iraun zuten, ontzigitza-krisiagaz desagertu arte. Horien historia batzeko aukera ona zen liburua, galtzera zihoan bestela, eta inork ez zukeen jakingo Erandiok ontzigitzan 50 urte bikain izan zituela. Hori da Erandiok itsasoagaz izan duen harremana kontatzeko arrazoia. Ontziolen artean, ni zuzendari ibilitakoaz ari naiz batik bat, Zelaia ontziolaz. Eskola-ontzien



Bizitza osoa eskaini dio Alonsok ontzigitzari, Euskaldunan lehenengo eta Zelaian ondoren

eraikuntzan munduko garrantzitsuenak ginen eta anekdotak asko kontatu dit. Guayas ere eraiki genuen, haren eraikuntzaz aritu naiz.

—**Izan ere, ontzi hark harreman handia izan zuen erandioztarrakaz, ezta?**

—Ontziaren eraikuntza atzeratu zen eta tripulazioa behar baino lehen iritsi zen herrira. Beraz, herritarrek hartu zituzten etxean. Horrela, harreman sakona egin zuten herritarrekaz, batez ere neska askogaz. Beraz, mingarria izan zen asko-

rentzat ontzia joatea.

—**Zer da zuretzat ontzigitza?**

—Nire bizitza izan da. Duela 50 urtetik gora etorri nintzen hona lanera, Euskaldunan ibili nintzen 1973 arte, potentzia bat zenean, eta Zelaiara igaro nintzen gero, ontzigitza-birmoldaketaren ondorioz. Orduan Euskaldunatik ehunka ontzi igarotzen ziren urtero, herrialde askotakoak. Gaur egun susma ezin daitekeen jarduera bizi zuen errekek, ibai osoa portua zen. ○

Jatorrizko toponimia

berreskuratu eta herriko leku izenak moldatu dituzte; **mapa ikusgai** dago interneten



Goierriko Desengaño-Urgitxi kalea Mesoena-Urgitxi izango da hemendik aurrera

Erandioko toponimia batu, sailkatu eta aztertu dute, ondoren izen barriak finkatzeko. Barriak baino zaharrak esan behar, desagertu edo ia desagertutako leku-izenak berreskuratu dituzte eta. Mapa eta kale-izendegi barria osatu eta urtarrila akabuan aurkeztu zuten Udaletxean. Aurten aldatuko dute kaleen errotulazioa.

Herriko toponimia eta ageriko hizkuntza-paisaia normalizatu guran egin du lana Udalak, Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeagaz lankidetzan. Iratxe Lasak batu du informazioa. Horretarako, edadeko erandioztar askogaz egin du berba, beraiek gogoan gor-

detzen dituzte-eta jatorrizko baserrien, soloen, bideen... izenak.

Toki-izenen aldaketa ezagutara emateko mapa eta liburuxka argitaratu dituzte, lan oso “zehatza eta zorrotza”; etxe guztietan banatuko dute. Mapa interneten ikus daiteke dagoeneko, www1.geograma.com/erandioleusk.callejero/irinetv.aspx helbidean.

Gainera, datozen hileotan gune osutuagoa abiatuko dute, herritarrek galderak egin ditzaten eta informazio osoa kontsulta dezaten. Bestalde, eskoletarako unitate didaktikoak ere prestatu dituzte, hizkuntza eta kultura ondarea gazteei zabaldu asmoz. ○

AURTEN AURREKONTUA 6 MILIOI GUTXIAGO

Udalaren aurrekontua 35.403.068 eurokoa izango da 2010ean, iaz baino 6 milioi euro gutxiago. Horren arrazoia, Udalak azaldu duenez, “*gastu arruntaren murrizketa handia*” egon dela, batez ere “*diru-bilketak behera egin duelako*”. Halere, Gizarte Ekintza Sailerako %3 igo dute aurrekontua, 4,4 milioi euroko partida izango du. Bestalde, bere horretan mantenduko dituzte aurten tasak eta zergak.

ALTZAGAKOAK MOBILIZATZEKO PREST

Hiru urte dira Altzagako zenbait kaletako lagunak etxetik atera behar izan zirela. Ondoko orube batean etxebizitzak eta lurazpiko aparkalekua egiteko lanek beren etxeren egitura mindu eta kaleratu behar izan zituzten. Baina oraindino ez dago egitasmorik arazoa behin-betiko konpontzeko, eta mobilizazioei ekingo dietela jakinarazi dute auzotarrek. Dagoeneko asanbladak egiten hasi dira, “*ahalik eta adostasunik handiena lortzeko*”. Udalak, bere aldetik, azaldu du erakunde publikoak akordioa egiten saiatuko dela, enpresa eraikitzaile pribatuak akordioak ez baitu lortu. Mindutako etxe zaharrak eraitsi eta eraikin barriak eraikitzea da Udalaren ideia. Zentzu horretan, urtarileko Osoko Bilkuran adostu zuten eraikinok egiteko lehiaketa esleitu barik uztea.

CLOWN TAILERRA LUTXANAN

Pailazoarena egitea erraza eta ohikoa da askorentzat, baina pailazokeriarik ez egitea beste kontu bat da. Horregatik, clown ikastaroa abiatu du Tirante Plataformak hil honetan. Ekainera arte iraungo du eta Lutxanan eskoletan emango dute, eguaztenero, 19:30-21:00 orduetean. Hilean 20 euro kobratuko dute. Beraz, animatu eta iratzarri barruan daroazun pailazoak!

Informazio gehiago: 655 73 24 84

Torreña 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
irati.algorta@gmail.com

irati
OPARIAK MODA GAZTEA

Basolanak Tf. 94 467 17 13
FAX 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Sakelakoa
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

LUBERRI
Basolanak S.L.

- Zuhaitz landsketa
- Inausketak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategi zainketa
DEITU!

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?

ARLAN
ASCENSORES

Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

Arazoei agur... Tf. 902 54 08 54

www.arlan.biz

TURISMOA, UDALAREN APUSTU ESTRATEGIKOA

Bost urtetan turismoari zuzendutako diru kopurua hirukoiztu du Udalak, 167.000 eurotik 439.000 eurora igaroz. Izan ere, Udalak estrategikotzat dauzka Turismo Bulegoak eta Informazio Puntuak. 2004an zabaldu zuen Turismo Bulegoa, "turismoa erakartzeko eta bisitarien kalitateko zerbitzua emateko". Ondoren abiatu zituen beste bi Informazio Puntuak. 2009ko udan eskuratu zuen turismo kalitateko Q izendapena, eta ondorioz, "urtero kontu-ikuskapena gaintzera behartzen" dituela adierazi du Josu Landaluze alkateordeak, baina ziurtatu duenez, "erantzukizun hori gustura hartzen dugu". Era berean, bisitak ere biderkatu dituzte gune horietan. Bulegoan 435etik 11.300era igo dira kontsultak bost urteotan, eta Informazio Puntuetan, %3 bigarren urtean.

URAZCA ENPRESAK GARBITUKO DITU KALEAK

Hemendik aurrera Urazca Zerbitzuak eta Ingurumena S.A. enpresak garbituko du herria, urtarileko Osoko Bilkuran aho batez adostu zuten. Azken urteotan CESPAn enpresak egin izan du lan hori. Langileakaz gatazka bizi izan du enpresak, soldatak Bizkaiko beste herrietakoakaz parekatuta ez ei zeudelako. Urazcak ezagutzen du gatazka hura eta langileakaz akordioa egiteko negoziaketan murgilduta dago.

MUGIKORTASUN PLANA, BIGARREN FASEA ABIAN

Udako datuak batzen amaitu eta neguko mugikortasuna aztertzeari ekingo diote, lana osatzeko. Mugikortasun Planaren bigarren fasea da. Ibilgailuen joan-etorriak eta segurtasun arauak betetzen diren neurtzen dabilta. Oinez, garraio publiko eta bizikletaz egiten diren bidaiak ere neurtzen dabilta, mugikortasun jasangarria lortu asmoz. Martxoan aurkeztuko dute diagnostikoa.

Aurrekontu txikiagoa

Zergak izoztuko dituzte; Bareño zubian eta Udaltzaingoaren egoitzan ere inbertituko dute



Udaltzaingoarentzako egoitza barria egiteko diru-partida jasotzen du aurrekontuak

laz baino %18,4 txikiagoa izango da aurtengo aurrekontua, ia 18 milioi eurokoa, "bizi dugun krisi ekonomiko egoera dela eta", Udaletik azaldu dutenez. EAJren eta PSE-PSOeren bozei esker onartu zuten aurrekontua, urtarilaren 18ko Osoko Bilkuran. PPK, Ezker Abertzaleak eta Berdeek kontra bozkatu zuten, eta EA zein Ezker Batua abstentitu egin ziren.

Zergak eta tasak izoztuko ditu Udalak, "herritarren zama ez handitze-ko", eta udal goi karguen soldatak bere horretan mantenduko ditu.

Inbertsioen atalari dagokionez, 4.820.520 euro gastatuko du. Inbertsiorik garrantzitsuenak Bareño zubia eraikitzeke egingo ditu, eta Udaltzaingoaren egoitza barria egiteko eta zerbitzu hori zabaltzeko. Eguneko 24 orduetan eskaini asmoz, udaltzain konpuru handitu gura du Udalak.

Bestalde, gastu sozialerako diru-partida jaitziko du, baina oinarritzako errenta jasotzen duten pertsonentzako diru-laguntza bikoiztuko du. Gazte, aisialdi eta kultura jardueretarako, barriz, gastua handituko du. ○

Errota, gaztetxe

Sekeko errota zaharra **bizitzara ekarri dute** barriro **Gazte Asanbladakoek**



Lizarre auzoan dago Seke gaztetxea, metro geltokitik behera

Sekeko errota herritarren eskura jarri du Gazte Asanbladak. Abenduan okupatu zuten gazteek hutsik zegoen errota zaharra, eta gaztetxe bihurtu. Atontze lanetan murgilduta dabilta. Gazteek diotenez, "denbora luzean hutsik egon den etxea ilusioz barritu eta herri osoarentzako zabalik egongo den egoitza autogestionatu barria sortzea da" euren asmoa.

Dagoeneko harremanetan jarri dira auzokideakaz, gaztetxeari buruz informazioa helarazteko. "Zurrunmurrak argitu eta bizilagunak zuzenean informatu" gura izan ei dituzte horrela. Izan ere, herritarrek elkarbizitza ona izan gura dute, "gaztetxea gurea eta denontzako delako", ziurtatu dute. Sopeloztar guztiak gaztetxea ezagutzera ere gonbidatu dituzte, haurrak eta helduak barne. Herri osoarentzako proiektua dela jakinarazi dute, eta ondorioz, sopeloztarren laguntza eta parte hartzea ezinbestekotzat jo dituzte.

Gazte Asanbladatik azaldu dutenez, tabernetan ibiltzeari edota kirola egiteari beste alternatiba bat eskaini gura diete herriko gazteei, horregatik sortu dute gaztetxea. Gunea "sortzailea eta autogestionatua" izango da, gainera. Baina hau ez da gai barria Sopelan, lehendik ere egon da hainbat gaztetxe herrian, Gaztetxe Zaharra, Eskola Gorriak, Igeltsera eta Ganearri, barbarako.

Gaztetxea leku bizia eta dinamikoa izatea gura dute gazteek. Izan ere euren

«Gai gara antolatu, sortu eta proiektuak egia bihurtzeko»

esanetan, "gazteak bagara antolatzeke gai, sortzeke eta proiektuak edota ametsak errealitate bihurtzeko".

Eta lanari ekin diote. Konponketa lanetan erabat sartuta, atsedena hartuko dute inauterietan. Bazkaria eta antzerkia antolatu dute otsailaren 13rako; inaurazio moduan ere balio lezake. ○

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide
pinturak

RIPOLEN
BONDÉX
DYRUP

Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturbarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net

LAIKAK
Taberna

EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

**LIBURU BILKETA
ELKARTASUN AZOKARAKO**

Apirilean ospatuko dute Erabilitako Liburuaren Elkartasun Merkatua aurten, eta dagoeneko, liburuak biltzeari ekin diote. Santa Ana zein Berangoetako kultur etxeetara eroan daitezke liburuak, baita Nagusien Etxera ere. Utzitako liburu bakoitzaren truk "liburito" bana eskuratuko du lagun horrek eta apirilako azokan trukatu ahal izango du beste liburu batengatik. Baina diru-truk ere erosi ahal izango dira liburuak, prezio herrikoietan. Bildutakoa ACOBI Bielorrusiako umeen harrera elkarteari emango diote. Umeak udan aste batzuk Bizkaira etortzeko erabiliko dute jasotakoa. Iaz 2.000 liburutik gora bildu zuten.

**GAZTEENTZAKO
IKASTAROEI EKIN DIETE**

Enplegua lortzen laguntzeko teknikak erakusteko asmoa daukate gazteentzako ikastaro barriek. Urtarrilean abiatu dituzte kultur etxeetan. Lana non bilatu, curriculum osatu edo lan elkarrizketa arrakastaz egiten irakatsiko dute, besteak beste. Bizpahiru eguneko ikastaro azkarrak izango dira. Baina beste mota batekoak ere eskainiko dituzte, zur lanketa, aerobica, perkusioa edota *photoshop* programari buruzkoak izango dira. Iraupen desberdina izango dute, hilabetekoak batzuk, ekainera artekoak besteak. Hil horretako 13an, gainera, Andy Warhol artistaren lanari buruzko monografikoa eskainiko dute. Informazio gehiago Udalaren webgunera joz lor daiteke.

Herri barruko kontsumoa bultzatzeko, **Zerbitzuen gida** argitaratu dute Behargintzak, Udalak eta Merkatarien elkarteak



Etxez etxe banatu dute gida

Zerbitzuen gida argitaratu du sortu barri den Merkatarien elkarteak. Lanari gogotsu ekin dio beraz, eta herritarrek kontsumoa Berangon egiteko egitasmoa abitu dute. Udalgaz eta Behargintzagaz elkar lanean atera dute.

Esan bezala, sektorea bultzatzeko helburua dauka ekimenak, eta horretarako saltoki eta zerbitzu eskaintza ezagutzera ematea izan da lehen urratsa. Gaur egungo bizitza erritmoagaz eta kontsumorako ohiturakaz, askotan zaila daukate aurrera egitea herriko merkataritza guneeek. Berangon ere gaiagaz kezkatuta daude merkatariek eta horregatik

sortu dute Merkatarien elkarteak, sektorea bizibarrizteko asmoagaz. Gainera, Udalaren jardunagaz bat e dator gida argitaratzeko ekimena.

Etxe guztietan banatu dute dagoeneko, eta gogoko establezimenduen kokalekua aurkitzeko mapa ere badauka. Haregaz batera doa establezimendu bakoitzaren jardueraren azalpen zehatza eta arduradunagaz harremanetan jartzeko jarraibidea.

Udaletik jakinarazi dute elkartearen hurrengo pausoa izango dela merkatarien proposamenak eta kezkak bideratzea, Udalgaz etenbako harremanean. ○

Lumine Motus elkarteak > argazki erakusketa

“Argazkiak disko gogorrean ahaztuta ez uzteko sortu dugu elkarteak”



Lumine Motus elkarteak kideak

Zazpi lagun eta argazkiak egiteko zaletasuna, hori baino ez zuten behar izan Lumine Motus-eko lagunek. Orain sei hilabete sortu zuten elkarteak “argazkiak disko gogorretik atera eta mundura zabaltzeko”. Otsailean zehar, erakusketa ikusgai jarriko dute Plentziako Goñi Portal Kultur Etxeko hallean.

—Zertarako sortu duzue elkarteak?
—Orain urte bi, zazpi lagun (Deo Villasante, Aitor Peña, Juan Angel Regaña, Mikel Cantalapiedra, Iker Olaetxea, Joseba Rodriguez eta Alex Conceiro) batzen hasi ginen kostaldean argazkiak egiteko. Baliabide gutxi ditugu, Aitor kenduta, gaintzekook ez baikara profesionalak. Hori ikusita, elkarteak sortzea erabaki genuen; alde batetik, indarrak batzeko, eta bestetik, baliabideak elkartrukatzeke. Argazkiak disko gogorrean, bakarrik gure kontsumo-

rako ez uztea da gure nahia.
—Zergatik *Lumine Motus* izena?
—Lumine motus esamoldeak argiaren arabera mugitzea esan gura du. Hori da guk egiten duguna, argia oso garrantzitsua da guretzat. Euskaraz, gazteleraz eta ingelesez erabilia zegoenez, latinez uztea erabaki genuen.

«Hilaren amaiera arte erakusketa ikusgai egongo da Goñi Portalen»

—Zer ikusi ahal izango da Plentziako erakusketan?
—Uribe Kostako kostaldeko argazkiak aukeratu ditugu: Plentzia, Barrika, Azkorri e.a. “*Hurbileko paradisuak*” izena ipini diogu.
—Aurrera begira, zer?
—Martxorako beste proiektutxo bat daukagu Larrabetzun. ○

Informazio gehiago:
<http://lumine-motus.com>

tanta.
estetika



BIBRAZIO PLATAFORMA BARRIA
(Berme profesionalagaz)

20 eta 50 euroko bonoak
(10min-ko saioak)



Basagoiti etorbidea 85 (Algorta)
Tf: 645 739 780
Zure beharren araberako ordutegia

Uribefm
fm 107.8
Gaitz Iratila



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

Garaizar
barrikuntzak

- Igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • garaizar@euskalnet.net
Biete kalea 1 • ALGORZA



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IRASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / Tf. 94 491 17 86

IKASTARO GEHIAGO AUKERAN 2010ERAKO

Uribe Kostako Mankomunitateak 2009-2010 ikasturterako ikastaroen eskaintza zabaldu du. Orain arte zeuden 29ei beste lau gehitu zaizkie: Lorategien diseinua 3, Landare bizikor eta belarkiak 3, Ortu ekologiko basikoa 3, Ortu ekologiko aurreratua 3. Doako ikastaro horietan izena eman gura duenak, agenda21@uribekosta.org helbidera idatzi edo 94 676 26 74 zenbakira deitu besterik ez du.

ARO DIGITALEAN ERE PLENTZIA TB IKUSGAI

Itzalaldi analogikoa urtarilaren 10ean heldu bazen ere, Plentzia Telebista ikusten jarraitu ahal izango da Plentziako etxeetan. Horretarako, LTDA instalatzera doan antenistari, seinale analogikoa ez kentzeko eskatu behar zaio.

Informazio gehiago: 94 677 33 04

UDAL ZERBITZUEN PABILOIA AMAITUTA

Biltegi legez erabiliko den pabiloia amaitu barri du Urdulizko Udalak. Erabilitako eta erabiltzeko moduko udal ekipamenduak hartzeaz gain, aldagelak ere baditu. Pabiloia 835 metro koadro ditu solairu bitan banatuta. Honen eraikuntzari esker, gaur egun dauden biltegiratze beharrian guztiei erantzun ahal izango die Udalak. Gainera, orain arte udal materialak gordetzeko erabili diren espazioak hustu eta beste erabilera batzuetarako utziko dituzte.

BARRIKA

Neanderthalaren arrastoak Zabaletxen



Orain dela 100.000 urteko arrastoak aurkitu dituzte Meñakoz inguruan

Meñakoz hondartzatik hurbil, Zabaletxen, Kurtzia aztarnategia aurki daiteke. 50eko hamarkadan hasi zen Jose Miguel Barandiaran Punta Galeatik Plentziara zabaltzen diren arrastoak aztertzen. Lehenengo azterketa horietan, arraskak, laminak, puntak eta bestelako tresnak aurkitu zituzten. 1990ean, aurkitutako silex kopuruagatik, zonalde horretan inguruko koloniak hornitzen zituen tailerra egon zela ondorioztatu zuten.

Ikerketa ugari egin badira ere 2009a

arte ez dira Kurtziako arrastoak sakon aztertu; azarotik 8 aditu daude beharretan Barrika inguruan.

Urtarrilean kaleratutako informazioaren arabera, orain dela 100.000 urteko arrastoak aurkitzeak, Uribe Kostan Neanderthala izan zela pentsatzera eroan ditu ikertzaileak. Hori baieztatuz gero, Bizkaiko arrastorik zaharrenak lirakeke Uribe Kostako kostaldean aurkitutakoak. Giza aztarnak, lau puntu estrategikoetan aurkitu dira. ○

Ots. 8 - Ots. 22

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

MUSIKA

BERANGO

► **Begira taldeagaz berbena (inauteriak).** Pilotalekuan. Otsailaren 20an, 20:00etan.

ERANDIO

► **Dantzaldiak orkestragaz.** Altzagako azoka zaharrean. Otsailaren 14an, 17:30etan.

GETXO

► **Kontzertu klasikoak.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, otsailaren 16an, 17an, 18an eta 20an. El Redentor elizan, otsailaren 19an. 20:00etan. Hainbat prezio.

► **Bizardunak.** Algortako Portu Zaharrean. Otsailaren 19an, 22:00etan.

► **Des-Kontrol.** Algortako Portu Zaharrean. Otsailaren 20an, 22:30etan.

LEIOA

► **Siroka.** Kurkudi Herriko Tabernan. Otsailaren 19an, 22:30etan. Doan.

ERAKUSKETAK

LEIOA

► **Bosteko, arte garaikidea.** Kultur Leioan. Martxoaren 7ra arte. Doan.

GETXO

► **Aintzane Martinez de Lunaren olioak.** Algortako erakustaretoan, otsailaren 20ra arte.

PLENTZIA

► **Plentzia eta Uribe Kostako argazkiak. Lumine Motus argazkilaritza elkarte.** Gofi Portalen. Otsailaren 26ra arte.



Galea inguruan daude bisitatuko dituzten etxeetako batzuk

► Ibilbideak

Lloyd Wright arkitektoaren eragina Getxon

Frank Lloyd Wright "arkitektura organikoaren" sortzaileari buruzko erakusketa ikus daiteke egunotan Bilboko Guggenheim museoan. AEBtako arkitektoaren lanak eragina izan zuen gure inguruan: Getxoko hainbat eraikinetan nabari daiteke, publikoak batzuk eta familiabakarreko etxeak besteak. Hori dela eta, bilbotar museoan ibilaldiak egiten dabil Getxotik, Arkitektoen Kolegioaren laguntzagaz. Ekimena bukatzeaz dago baina asteburu honetan egongo da aukerarik parte hartzeko, otsailaren 14an, domekan. Egun horretan amaituko da erakusketa Guggenheimen. Izena emateko 94 435 90 12 telefonora hots egin behar da, goizez. 11 euro ordaindu behar da.

• Non: Getxon • Noiz: Otsailak 14, domeka

BESTEAK

LEMOIZ

► **Argazkilaritza digitala ikastaroa, euskaraz.** KZgunean. Otsailaren 6an, 13an, 20an eta 27an. 11:00-13:00.

GORLIZ

► **Mitologia tailerra.** Ikastetxean. Otsailaren 10ean, 17:30etan.

BARRIKA

► **Tostada lehiaketa (inauteriak).** Otsailaren 12an, 17:00etan.

ERANDIO

► **Autobilaketa tailerra.** Keli taldeak antolatuta. Lutxanako eskoletan. Otsailaren 12an (ekainera arte), 19:45ean.

► **Aholkularitza sexologikoa.** Gazte Informazio Bulegoan. Otsailaren 19an, 18:00etatik 20:00etara.

► **Argazki urteera.** Astrabuduko Fotoclubek antolatuta. Taxi geltokian. Otsailaren 21ean, 09:00etan.

SOPELANA

► **Euskal mitologia tailerra.** Kurtzio kultur etxean. Otsailaren 15ean, 11:00etan eta 17:00etan.

GETXO

► **Gurasoen eskola, ikastaroak.** "Adimen emozionala", Azkorri ikastetxean, otsailaren 15ean. "Sariak eta zigorrak", Larrañazubi ikastetxean, otsailaren 18an. Ikastaroa ekainera arte izango da. Doan. 94 466 01 51.

PLENTZIA

► **Ikasleen gela.** Gofi Portalen. Izen ematea otsailaren 15era arte. Ekainera arteko ikastaroa. 30 euro.

► **Bilboko Arte Eder museoan bisita gidatua genero ikuspegitik.** Martxoaren 3an eta 17an. Izen ematea otsailaren 16ra arte. Doan.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Haizea 1 - Aterkia 0

Egun haizetsua izan zen urtarrilaren 14a; komunikabideetan 120 kilometro orduko haize boladak egon zirela entzun eta irakurri genuen. Hona hemen, egun horretako haizearen biktimak. Ez pentsa buelta asko eman behar izan genuenik horiek guztiak aurkitzeko; Algortako Telletxe eta Euskal Herria kaleen artean zeuden guztiak abandonatuta, errukigabe. Haizea 1 - Aterkia 0.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Ibaizabalen alde biak

elurak estalita

Ikusiko zenuenez UK-ko ale honetako argazkietan, eguraldiak eta horren ondorioek protagonismo handia dute. Urtarrilean izandako elurteak Gorlizen utzitako argazkiagaz hasi, hil bereko haize bolada bortitzek apurtutako guardasolakaz jarraitu, eta amaitzeko, itsasadarraren alde biak zuriz jantzita erakusten dituen antzinako irudia ekarri dizugu. Txurruka kaia, Serantes mendia eta Areetako etxe dotoreetako teilatuak elurak estalita agertzen dira. Ez dakigu zein urtetakoa den argazkia; baina ziur gaude, egun horretan, gaur egun bezala, elur bolakaz jolasten ibili zela bat baino gehiago eskolarako edo beharrerako bidean. Jolas kontuetan, ohiturak pentsa baino gutxiago aldatu dira.

[berbetan]

Asier Hormazak (Getxo, 1970) urte andana daroaz oholtza gainean zein kamera aurrean, eta lauzpabost lerro hauetan ezin da laburbildu aktore legez jardun duen antzezlan, telebista saio eta filmen zerrenda luzea. Publizitatea (EHU) ikasi zuen eta Getxoko Antzerki Eskolako lantegietan hasi zen antzerkia lantzen; 20 urtegin egin zuen bere lehenengo antzezpena. 2001ean Kanpingags ikusentzunezko eta antzerki produktora sortu zuen Xabier Agirre eta Patxi Barcogaz batera. Hormaza (Gorka protagonista) eta Agirre aktore, Barco zuzendari eta Euskal Herrian eta Kuban grabatzen amaitu barri duten *Dragoi ehiztaria* filmak (Zurriola etxeak ekoitzia; Gidoilaria eta proiektu zuz.: Angel Amigo) emongo du zeresana, ziur, datorren udaberrian.

Asier Hormaza

Oholtzatik armadun

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Herriko eskauteko lagunek gogoan dute Asier Hormaza gaztetxo txiste kontaketan gaubeletan; antzele sena txikitatik. —Haur-gazte garenean, badakizu! Gero jende asko aktore ez izan arren, beti egoten dira horretarako dohaina daukatenak. Zelanbait bakoitzak bere dohainak-eta adin horregaz ateratzen ditu; neuk erraztasun-edo banuen; beste bigaz ibiltzen ginen, eurek utzi edo egin zuten, oster nik... —Akorduan al daukazu “aktore izan gura dut” erabaki zenueneko?

—Bai eskautagaz eta bai bestelako udalekuetan ere, antzerkia egiten ibiltzen nintzen. Bertan konturatu nintzen, zelanbait esateko taula gainean egitean, edo behintzat gauetan antzerkia eginez, erantzuna dagoela, eragina jendearengan, guk zerbait egin eta emozio bat pizten dugula. Horretaz konturatu nintzen, hori jaso egiten dugu. Gero, jende askok animatu ere egin ninduen. Ez neukan hasiera-hasiera batean honetan jarduteko asmorik, ez nekien egin zitekeenik ere! Behin gure etorkizuna erabaki behar dugun momentu horretan, erabakia hura izan zen: batetik unibertsitateko

ikasketak, eta bestetik, hori garatzen jarraitzea. Zer gertatu zen? Unibertsitatean hasi eta berehala hasi nintzela antzerkian lanean, karrera amaitu eta antzerkian lanean jarraitu nuen; eta gaur arte! —Rol ezberdinetako pertsonaia andana antzeztu dituzu antzerki, telebista zein zinerako. Drama nahiko jorratu baduzu ere, badirudi umoreak egin zaituela ezagun. —Ez dakit, agian drama komedia baino gehiago, edo hortxe-hortxe. Gertatzen dena da telebistak duen oihartzuna antzerkia-

“Komedia baino ia gehiago landu dut drama, baina telebistaren oihartzunak hori dauka”

rena baino askoz handiagoa dela; zinea egiteko ere Euskal Herrian behintzat aukera gutxi dago, orokorrean ere aukera askorik ez. Beraz, iritsi izan dena telebistan egindakoa da, bereziki *Sorginen Lanatza*-koa, eguneroko agertzen zen, eta hor jorratutakoa komedia zen. Hori da zelanbait oihartzun gehien izan duena, hori dela eta jendea alde horregaz bakarrik lotzen da. Baina, egia

esan, zinean momentuz ez dut komediarik egin; *Eutsi!*-n ez zen komedia niri zegokidana, hori Anjelek (Alkain) betetzen zuen, *Final de la noche*-n ere ez, azken honetan are gutxiago, *Dragoi ehiztaria* ez baita inondik inora komedia. Eta hortik zehar beste pelikuletan egin izan ditudanak ere ez dira komediazkoak izan. Antzerkian bata zein bestea jorratu ditut. Halere *Goenkale*-koa ere ez da komedia izan, ezta *Clara* telebista-filmerako egindakoa... Azkenean, komedia baino gehiago landu dut bestea,

baina telebistaren oihartzunak hori dauka! —Orainsu aurkeztu duzue *Arrastoa* (Txalo Produzioak) antzerki lana; hori ere goi mailako komediatzat sailkatu dute. —Ingeles komedia bat da, ez da komedia-komedia hutsa, ez da barre algarak sortuko dituen, baizik eta thriller, intrigan murgiltzen den komedia; badu ingeles umorearen puntu hori, baina funtsean intriga,



misterioa biltzen dituen lan entretenigarria da. Oso ondo joan da, erantzuna ere oso ona izan da, jende nahikotxo gerturatu zen Antzoki Zaharrera (Donostia). Orain Euskal Herrian zehar ibiliko gara, eta martxoan gaztelerazko bertsio estreinatuko dugu.

—**Kanpingags konpainiagaz barriro ere *Ilunpetan antzezlanagaz ibiliko zarete.***

—Bai, euskarazko eta gaztelerazko bertsioagaz. Orain hala heldu da, dena segidan, batera. Kubatik itzuli eta berehala hasi nintzen honegaz; ziztu bizian muntatu dugu!

—Kuban grabatu duzue udaberrian estreinatuko den *Dragoi ehiztaria* (zuz.: Patxi Barco) filmako zati handi bat. “*Euskaraz filmatu den ekoizpenik garestiena (bi milioi eta erdiko aurrekontua)*” ei da.

—Filma elebiduna da, hau da, nik uste euskaraz eta gazteleraz egiten denaren kopurua berdintsua dela; izan ere, Kuban grabatutako %90 edo gazteleraz izan da, eta hilabete bi izan dira. Esperientzia oso ona izan da, izugarria! Oso pozik itzuli gara, bai lanagaz bai hango jendeagaz izandako harremanagatik, oso ondo ulertu dugu elkar...

—**Orain dela urte pare bat, elkarrizketa batean esan zenuen: “*eskatzen nabil ETAREN inguruko benetako istorio bat; “oraindik goiz da...” esaten didate, bada ez dakit zergatik, nik oraintxe egingo nuke, serio, istorio potente bat...”.*** Horra berbarako: *Zeru horiek*, edo *Dragoi ehiztaria* berau.

—Esandakoa mantentzen dut; uste dudalako kontatu beharreko zerbait dela, hemen gertatzen den zerbait delako. Beste edozein istorio kontatzen den bezala, nik uste, ETA ere Euskal Herriaren historian dagoela, gustatu ala ez, baina, hor dago, eta uste dut kontatu beharrekoa dela. Prentsaurrekoan ere esan nuen, pelikula hau behintzat izan daitekeela ETAREN munduaren inguruan konta daitekeen istorioetako bat. Uste dut hurbilketa nahiko ona izan dela. Esan behar da, istorio oso pertsonala kontatzen duela. Ez dakit bermatuko duen jendeak hobeto ezagutzea; uste dut behintzat istorio interesgarriak daudela, ezagutu beharrekoak, eta badaukala mamia kontatzeko moduan. Oraindino ere etorri behar-

ko dira istorioak, eta kontatu, amaitu beharko dira, baina nahiz eta hau istorio oso pertsonala izan, uste dut betetzen duela; jendearentzat ere, ez dakit gauza asko argituko dituen, baina gauza batzuk bai, ez dakit ETAREN ingurukoak, baina bai barnean dauden kide batzuen ingurukoak.

—**Zelakoa izan da “Gorka” protagonista-ren papera prestatzea?**

“Pelikula hau, behintzat, ETAREN munduaren inguruan konta daitekeen istorioetako bat izan daiteke”

—Kontuan izan behar da idazterako orduan, lantzerakoan ere, pertsona biren istorio edo bizipen pertsonalak bildu direla. Bata kanpoan dago, Bruselan bizi da, oraindino; bestea, bertan, Euskal Herrian. Alde horretatik da istorio oso pertsonala. ETA politiko-militarrak erabakitzen du armak uztea; berak oraindino zer esan eta zer egin baduela sentitzen du, hori dauka buruan. Horregatik erabakitzen du internazionalistakaz Nikaraguara eta El Salvadorra joatea. Istorio oso berezia kontatzen du, alde horretatik; zelanbait joan-etorriko bide edo bidaia. Berak argi dauka oraindino zerbait duela egiteko, dragoia ehizatu behar duela, hemen ez du lortu. Baina bizitzak buelta asko ematen ditu; semea izateak ere bizitza aldatzen digu. Hori da zelanbait honi gertatzen zaiona, bereziki semearen “aita zuk

“Antzerkia krisian baino, krisian dagoena antzerkia serio hartu behar duena da; Administrazioa”

zer egiten zenuen gazte garaian?” galdera horri erantzun beharrean aurkitzen dugunean gure burua. Hori da pelikularen abiapuntua. Ez dakit kontzientzia asko mugiaraziko dituen, edo behintzat kolokan ipini, baina behintzat hor lotuko da, zelanbait kontatzen dena. Espero dugu, hori da behintzat asmoa, erantzuna izatea.

—**Azken aldian euskal film nahikotxo egin dira, parte hartu duzun batzuk baino ez aipatzearren: *Sukalde Kontuak, Eutsi!*, edo *Kutsidazu bidea, Isabel*. Euskal aktore zaren heinean, euskal zinearen susperraldiaz berba egin litekeela uste duzu?**

—Pelikula ia-ia bakarria egiten da urtean... Zerbait bada, baina martxa oso-oso mantso doa; halere, hobe bakarria, ezer baino. Bere

garaian esan nuen, barriro esango nuke, Administrazioak serio hartu behar duela euskal kultura, horren baitan zinea ere hor dago; serioago hartu behar du. Pelikula honetarako diru gehien ipini duena Television Española (TVE) izan da! Euskal zineak TVEren zain egon behar ote du zinea egiteko!? Nik txalotzen dut TVEren jarrera hori, dirua jartzea, euskal zinea bultzatzea. Baina, Administrazioak, eta berdin zait zein dagoen boterean, oraingoak edo aurrekoak, serio hartu behar du euskal kultura; eta euskal kulturaren sustraia ere landu egin behar ditu, ez du balio halako batean halako bultzada ematea zineari edo antzerkiari, eta gero bertan behera uztea. Urtero-urtero funtzionatzen duen eta aurrera egiten duen mekanismoa planteatu behar da. Eta hori egitea beraiei dagokie, sekulako dirutza kobratzen

dutelako! Horien teknikariek erabaki behar dute zer egin behar den.

—**Euskal aktore asko lan bila kanpora joan behar izatea da gure errealitatea. Egoerak txarrera egin al du krisia dela eta?**

—Egoera aurretik ere oso makala zen, bi urtetik hona askoz makalagoa; etorkizunari begira ere ez da oso argi ikusten. Krisiarena

hasi nintzenetik entzun dut, baina orain bai, orain iritsi egin da. Orain arte krisian ba-geunden, oraingoa zera da, “desastrea”! Baina antzerkia krisian baino, krisian daudenak antzerkia serio hartu behar dutenak dira: Administrazioak. Beti esan da “antzerkia krisian...”; ez, ez, antzerkia ez dago krisian, antzerkia egin egiten dugu, baliabide gitxi-gaz, edo gehiagaz, baina antzerkiak aurre-

“(Euskarazkoak baino...) dirua emango duten lanak egin beharko ditugu, horren krudel! Etorkizunean? Itzuliko gara”

ra egiten du, ateratzen da... Gizakiak gizaki denetik egin du antzerkia, eta bizirik iraun du duela 5.000 urtetik hona! Krisian daudenak dira serio hartzen ez duten horiek, eurek krisian daudela-eta bost axola antzerkia, zinea e.a.! Horiengatik gaude krisian! Eurek daude krisian, eta zer eragiten dute? Besteok ere zulo horretan erortzea!

—**Filma elebiduna, antzerkian ia beti euskaraz eta gazteleraz... zoratzeke modukoa!** —Betidanik horrela ibili izan gara Euskal Herrian antzerkia egiten dugunok. Gertatzen da leku berean 20:00etan euskaraz antzeztea eta 22:30ean gazteleraz; edo esaterako *Por los pelos/Ezetz lepoa jarri* lanagaz, eus-

karaz pertsonaia bat antzetzuta eta gazteleraz beste bat. Euskal Herrian hori da normalea; eta nik ondo deritzot. Horretara ohitu gara; gogorra ere bada, hizkuntza bitan ibili, ikasi beharra. Baina, aukera ematen dugu euskarazko antzerkiak bizirik iraun dezan, eta gaztelerazkoak ere. Euskal Herriko errealitatea elebiduna da, hala da. Bultzatu egin behar da, noski, euskara, gazteleraren pare-

an beti galtzen ibiliko delako; baina, gure errealitatea hori da, eta aldatzea, nahiz eta politika ugari ipini martxan, zaila da. Bizirik irauteko politikak ipini behar dira martxan, eta euskara bultzatu egin behar da. Egin duan antzerki guztia hizkuntza bietan edo euskaraz soilik egin izan dut. Horregatik diot ez dakidala zergatik Administrazioak ez duen hori kontuan hartzen. Hemen lan egiten dugunok kulturaren alde gabilta lan egiten, kultura ez badugu serio hartzen ez daukagu beste erremediorik: hemendik alde egin. Eta zerk galtzen du? Euskarak, euskal antzerkiak... Neuk eta beste hiruzpalau aktorek erabakitzen badugu euskarazko an-

tzetirik ez egitea, dirurik ematen ez duela; eta Administrazioak ez badu interesik...

—**Eta euskal antzerki zaleak?**

—Antzokira joaten dira! Orain Donostian ere izan ditugu eguneko 170-200 lagun; horiek dira euskarazko antzerkira hurbiltzen diren ikusleak! Zaindu egin behar dira. Gu horretan gabilta; Kanpingags-egaz momentu latzak pasa ditugu, diru-laguntza barrik; oraingo egoera ere oso larria da. Eta euskaraz estreinatu izan ditugu antzezlan guztiak! Zer egin behar dugu? Ekoizteari utzi beharko diogu, beste ildo batetik jarraitu; pagatu behar ditugun fakturak eta kredituak izugarriak baitira!

Gure ildoak hemendik aurrera behintzat dirua emango duten lanak egitea izango da; horren krudel. Bestela, zuloa goaz. Etorkizunean? Itzuliko gara. Txalo konpainia, berez, enpresa bezala indartsuagoa da, egin dezake, euskaraz soilik antzezlan batzuk ekoizti, bestetik badituelako komertzialak diren gaztelerazko lanak ere. Ildo horri eutsi beharko diogu geuk ere, hori izango da gure etorkizuna. Momentuz eusten diogu, euskara hutsean diren lan batzuek jarraitzen dugu: *Ni naiz Hector*, *ni bakarrik!*, *Hor al zaude*; baina hemendik aurrera beste ildo horretatik jarraitu beharko dugu bizirik jarraitu gura badugu... ○

Begi bistan lana; etorkizunean zuzentzea

—**Noizbait esan zenuen, agian, azkenean (antzerkirako, film baterako) idazten amaituko zenuela...**

—Zaila da. Antzerki, zine zein telebistarako idazten dutenentzat beti izan dut errespeturik handiena, haien lana gorai-patzen dut behin eta berriro; meritu itzela dute. Izan ere, aktoreok idatzitakoan, eurek idatzitakoan oinarritzen gara. Neuk idaztea? Ez dakit; ideia sortzen bazait, eta argi baldin badaukat... agian jarriko naiz, baina beti ere beste norbaiten eskuetan ere utziko dut. Momentuz ez; errazagoa da lehenago zuzendari lanetan hastea. Azken finean, antzerkian lan

dexente egin dut, mundu hori zerbait ezagutzen dut, zelanbait zuzentzen ipintzeko beste, behintzat saiatzeko moduan; hori bai, etorriko da! Epe laburrera edo luzera. Idaztea... Animatu izan nautte, baina diodan errespetuagatik ideia oso-oso argi izan beharko dut, eta nora iritsi gura dudana ere bai; ikusiko dugu!

—**Lanik ez zaizula falta esan liteke. Beste egitasmorik? Kubatik agian?**

—Gure asmoa bueltatzea da; orain, bai, komedia bategaz. Berez, ICAIC-k (Kubako Zine Institutua) gutuna idatzi zigun, konpromisoa hartu du filma egiteko; baina hori datorren urtean. Gero, beste

proiekturen bat ere, pelikularen bat, baina oraindino idazten dabilta, ez dago data zehatzik; ez dut uste euskaraz izango denik. Proiektu oso berezia da, errodajea denboran zehar izango da, eta ziur-zenik hori ere hurrengo urterako edo. Eta Antzerkia ekoizten jarraituko dugu Kanpingags-en; momentuz badaukat nahikoa lan.

—**Lanik ez zaizu falta, orduan.**

—Ez, beno... Faltza izan zait, udan esaterako hilabete batzuk nahiko lasai ibili nintzen. Beti ere, ondo antolatuz gero, ez dugu zertan arazorik eduki! (irribarre erdi ironikoz).




Gent de la Rambla

Algortarra bada ere, azken hiru urteak Bartzelonan eman ditu Raul Hernandezek. Arte Ederretan lizentziatu zen EHU-n; urte biz diseinatzaile ibili ostean, Katalunia aldera joan zen GrisArt Goi Mailako Argazkilaritza Eskolan ikasketak burutzera. Gaur egun, argazkilari profesionala da eta moda eta interiorismo lanak egiten ditu, besteak beste. UK-ko ale honetarako utzitako argazkiak, *Gent de la Rambla* proiektuaren parte dira. Bartzelonako kale ezagunetik mugitzen diren lagunen barietatea erakutsi gura izan du bildumagaz; turistaz jositako txokoa gustuko ez badu ere, inspirazio iturri da artistarentzat.

Argazkiak: **Raul Hernandez** / www.lobobarbarroja.com











BETIKO

IKASTOLA

**GURE GAURKO
ETA BETIKO
IKASTOLA**

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Leioako Ikastolen Elkartearen ikastola bakarra.



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitzez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Historia dokumentala

Nabarralderen **1512, Nafarroako konkista** lanak "gertatutakoaren egia" zabaldu gura du



Amaiurgo monolitoa

Memoria kolektiboa berreskuratzeko eta ezagutzeko ahaleginean urte dexente daraman eta "kulturaren, historiaren eta gizatalde gisa eratzten gaituen guztiaren zabalkunde handiena egitea" helburu duen Nabarralde ikerketa-proiektuan mamitu da **1512, Nafarroako konkista** dokumental historikoa; adierazi dutenez "ezkutatu zaigun historia" eta "gertatutakoaren egia" ezagutarazteko, edota "konkista nolakoa izan zen eta gure historian zer-nolako eragina izan zuen zabaltzeko" asmoz plazaratu dutena. Ruben Marcellak zuzendu duen dokumentalaren gi-

doia Floren Aoizek eta Angel Rekaldek prestatu dute. Floren Aoiz, Mikel Sorauren, Pedro Esarte eta J. L. Davant historialarien azalpenak batzen ditu eta euskaraz, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez argitaratu dute. Bultzatzaileek "oso pedagogikotzat" aurkeztu dute, "ez dago eztabaida akademikorik, gertakarien deskribapena egin nahi izan dugu". Hala dio lanaren aurkezpen-sarrerak: "...Europako

«1512.a gorrotoaren eta legez kontrako biolentziaren data historikoa da»

erresuma zaharrenetakoa zen; aurreratua, txikia izan arren (edo hargatik hain justu) aberatsa... Nafarroa eredu zen bere garaian. Gaztelak Nafarroa konkistatu zuen su eta gar. Bulda faltsu eta iruzurrekin. 1512.a gorrotoaren eta legez kontrako biolentziaren data historikoa da..."

Konkista odoltsua, eraso militarra, arpilatzeak, errausteak, bortxaketak, independentzia berreskuratzeko ahaleginak, erresistentzia, galdutako (azken) guduak, Noain, Amaiur... Orduko gertakariak agerian uzten dituen ikus-entzunezko lan historikoa da, ordutik eta gaur arte iraun duten guda hots burrunbatsua azaldu, zergatia eta nondik norakoak jakinarazi gura dituen. ○

Informazio gehiago: www.nabarralde.com

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 48 (barrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

Tf. 94 491 13 37

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

Badok.info atarian "badon" musika andana

Berria egunkariak bultzatutako **euskal kantagintzaren biltegi, datutegi** edo atari digitalak **40 urteko ibilbidea batzen** du



Musikari eta taldeen 160 biografia ingururen artean, besteak beste, Bittor Egurrolarena dago

Iragan urte amaieran abiatu zuten *Berria* egunkariak bultzatutako *Badok.info* atari digitala. Euskal kantagintzaren datutegia izateko asmoz jaio den webgunea ez da helburu horregaz sareratzen den lehenengoa, ezta bakarra ere; orain arte sakabana-tuta eta labor egondako informazioa bartzeko, osatzeko ibilbide historiko batean kokatzeko ahalegina bete gura du. "40 urteko ibilbidea, 60ko hamarkadaren hasieran kantagintza barria sortu zenetik milturtekoaren amaiera arte," euskal kanta-

gintzaren historia eta ekoizpena jasotzen du *Berriako* kazetari Jon Eskisabelek koordinatzen duen atariak. "Garaian garaiko bilakaera estetiko eta estilistikoaren ildo nagusiak laburbiltzen dituzten 9 atalez gain, 160 biografia inguru, 1.000tik gora disko, DVD eta libururi buruzko informazioa, 270 diskotako hitzak jatorrizko diseinuagaz, ehunka argazki, 300dik gora kantu -asko jaitz daitezke-, 16 diskoetxeren biografia laburrak, bibliografia bat, bideoak eta gure kantagintzari buruzko az-

ken albisteak" aurki daitezke bertan. Ataria osatzeko Erresbil Musikaren Euskal Artxiboaren "ezinbesteko" laguntza jaso dute, euskal diskoetxeek ere kantuak utzi dizkiete, Elkar fundazioa ere bidelagun izan dute eta finantziazioan hainbat erakundek eta kutzak parte hartu dute. Kontsultarako tresna izateaz gain, osatzen joango dela iragarri dute arduradunek eta

«1.000tik gora disko, biografiak, kanten letrak, 300dik gora kantu e.a.»

horretan lagundu gura duenak atek zabalik dituela.

Aukera andanaren artean, hur-hurreko adibide bat aukeratzearren eta ematearren, besteak beste, aspaldi getxozartutako Bittor Egurrola kantari gernikarraren biografia eta hiru kanta entzun (eta jaisteko) aukera eskaintzen du *badok.info* gu-neak. Bide batez, aukera baliatuz, akordura dakarkigu aldizkari honek Egurrola aitabitxiaren disko txiki biak CD formatuan kaleratu zituela 2000. urtean, eta bilduma horretarako zentsuraren ondorioz inoiz argitara bako "Umezurtza" kanta grabatu zuela Egurrolak (pianoan Natxo Libanok lagunduta). Amaitzeko, aipaturako diskoaren alea gura duena datorrela UK-ren bulegora (Amezti 6, Algorta). ○

diskoak

Txalaparta
Juan Mari Beltran
Nerea edizioak

Musika tresnak azken berrogei urteotan garatu ibilbideari eta eraldaketari arreta jarri dio Beltranek, musikalki, sozialki, antzinako jotzeko erari zein joera barriei; DVDak eta CDak osatzen dute. Beltranek egindako ikerketa eta dokumentazio lanaren ondorioa da, musika mota hori ahalik eta hobekien ezagutzeko helburuaz.

Sedukzioaz
Anger
Musikherria

Arrasatearren bigarren lan luzea duzu *Sedukzioaz*. Metal eta hardcoreaz haratago, taldearen eragin musikal anitzak islatzen ditu. Jendarteari buruz beraien irakurketa ezagutuko duzu hitzei erreparatuta, oraingo honetan botere sozial eta politikoaren tresna den sedukzioari buruz mintzo direlarik.

Papera eta kartoia
Kerobia
Gor

Kerobiaren trilogiaren bigarren lana da, eta oraingoan, gogoeta eta konposizioan egoera barrien bilaketan oinarritzen dela diote taldekideek. Zehazki, "emaitza Rose Escargot eta trilogiaren lehenengo lanaren arteko oreka da, beste behin ere joera barrituak uztartuz". Ohikoa duten legez, berebiziko garrantzia daukate hitzek, hari lotzaila dira eta.

etorri
eta
ikusii!

ORIXA
liburudenda

Alargorta 8. Erabil Penita batega bar
Tf. 94 491 08 07
Algorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00

I

**Iñaki
Bitxitegia**

OMEGA, LONGINES eta TAGHELER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Tellebe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[liburuak]

Euskarazkoen zerrenda

Alberdania eta Elkar argitaletxeen liburu digitalen eskaintza

Liburu digitalen gaiari beste tiraldi bat emanez, oraindino hamaika esateko eta entzuteko badago ere, zale euskaldunek dituzten aukeren zerrenda da hurrengoa. Alberdaniaren eskaintza, besteak beste, hau da: *Eskarmentuaren paperak* eta *Zoaz infernura, laztana* (A. Lertxundi), *Etxe butsean* (K. Linazasoro), *Ihes ederra* (Hedoi Etxart, Alain M. Urrutiakelberri), *Etorkizuna* (I. Zaldua), *Belarraren ahoa* (H. Cano), *Antzaren bidea* (J. Muñoz), *Ai, ama!* (Arantxa Iturbe), *Berandu baino leben* (Joseba Azkarraga), *Burbuilak* (Irati Elorrieta), *Elurra sutan* eta *Mailu isila* (J. K. Igerabide), *Euskararen etxea* (P. Salaburu), *Ezjakintasunak* eta *Telebista antenetan atsedena hartzen*

«Euskal literaturako hainbat liburu entzutetsu daude euskarri digitalean»

dute txoriek (G. Markuleta), *Gerezi denbora* (Inazio Mujika Iraola), *Haiek zergatik deitzen dute Euskal Herria eta guk Ithaka* (Marc Biosca i Llahí), eta *T* (Olasagarre). Horrez gainera, Elkarrek ondorengoak eskaintzen ditu, besteak beste: *Connemara gure bihotzetan* (Julen Gabiria), *Izan bainintzen Nafarroako errege* eta *Rock'n'roll* (Aingeru Epalza), *Konapiloak* (J. Osoro), *SPrako tranbia* eta *Londres kartoizkoa da*



Unai Elorriagaren azken lana ere digitalean dago

(Unai Elorriaga), *Lagun izoztua* (J. Sarrionandia), *110. Street-eko geltokia* (Iñaki Zabaleta) *Gloria Mundi* (Fernando Morillo), *Etxearen negarra* (F. Juaristi), *Bilbao-New York-Bilbao* (K. Uribe), *New York, New York* (Gotzon Garate), *Fatum* (Jon Arretxe), *Habitat* (Katixa Agirre), *Nona ez dakizun hori* (Irati Jimenez), *Aulki-jokoa* (Uxue Alberdi), *Talatik tiroka* (Markos Zapiain), *Musika airean* (Karmela Jaijo), *Haragiaren gauak eta egunak* (J. M. Irigoien), *Urperatze handia* (K. Linazasoro) eta *Ahaztuen mendekua* (Alberto Ladrón Arana). ○

Informazio gehiago: www.elkar.com/ebook
www.tienda.leer-e.es/es/catalogo/editoriales/alberdania

liburuak



Stock 13
Edorta Jimenez
Txalaparta

Emakume ezberdinak izandako sexu harremanei buruz berba egiten digu Jimenezek bere azken lanean. Hori, musika, literatura, pornografia eta erotismoaren inguruko gogoetakaz nahasten du autoreak. Lan ausarta eta probokatzailea da.



Ataramiñe
Askoren artean
Ataramiñe

2001ean hasi ziren Euskal Preso Politikoekin, zein errefuxiatu eta deportatuak testuak batzen dituzten Ataramiñe koadernoak kaleratzen. 2009ko alean, Uribe Kostako Iñaki Gonzalo eta Aitor Artetxe presoekin eta Alfonso Etxegarai errefuxiatuaren testuak aurki daitezke.

[kirola]

Sasoi-sasoian ibilitakoentzat

Getxoko Udalak **kirolaren alde eta kirolarentzat** lan egindakoak **saritu** ditu



Sarituaren talde argazkia

Joan barri den urtarilaren erdialdean egin zen Faturako Udal Kiroldegian Getxo Sasoi-Sasoian kirol sarien banaketa ekitaldia. Sarion bitartez, Getxoko Udalak “kirolaren alde eta kirolarentzat lan egiten duten Getxoko bizilagunak eta elkarteak saritu” eta goraiatzat ditu. Hirugarren urtez antolatzen duten ekitaldian urteko Kirolaririk Onenaren saria jasotzeko hautagaien artean zeuden Jaime Bergareche (padeleko munduko txapelduna), Rocio Ybarra (Belar hockeiko munduko txapelketako lehiakidea), Iñigo Zalaya (snowboard) eta Garazi Bilbao (arraunlaria). Ekitaldira hurreratutako herritarren bozketak Garazi Bilbao izendatu zuen Getxoko 2009ko kirolaririk onena. Hautagai izandakoek ere (Zalaya izan ezik) Kirol Sariak jaso zituzten, Getxo Arraun Taldeagaz (gizonezko talderik onena; KAE1era igotzeagatik) eta Aixerrotako Boleibol taldeko hondartza-bolei alorreko 19 urtez azpikoen taldeagaz (emakumezkoen talderik onena) batera. Ostera, Iñigo Zalaya snowboard-lariak Kirol Berriak saria (gizonezkoetan) jaso zuen, baita Garazi Bilbaok berak (andrazkoetan) ere, eta Getxoko Aixerrotako Bo-

leibol Taldeko Kadeteek eta Arenaseko gazte taldeak ere, Ohorezko mailara igotzeagatik.

Aitzindariak saria Jose M^a Ortiz de Mendibil nazioarte mailako futboleko epaile ohiari emon zioten. Sari Berezien barruan, Marka Hautsiz saria Alicia Grijelmok (kirol egokitua) jaso zuen; Kiroltasunarena Nico de Meij-k (bertoko kirolagaz izandako lotura eta horren alde egindako lanagatik);

«Garazi Bilbao arraunlaria kirolaririk onena; Batiz eta Incera omendu zituzten»

Getxo Berrituz saria Garikoitz Fullaondok (Getxoko Futbol Eskoletako metodologian egindako lan berritzaileagatik); eta Getxo Zabala saria Pako Bartolomerentzat izan zen (Romo Eskubaloiko presidentea). Azkenik, une benetan hunkigarria izan zen bertoko arraunketan mito izandako eta iaz zendutako Imanol Batiz (Algorta) eta Jesus Incera (Raspas) arraunlariei Beti Gurekin sariagaz gorazarre egin zitzaizkion. Bego, UK sorreratik laguntzeagatik Batizentzat gure esker ona ere. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

KANTXA KIROL MODA

350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / Tf. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacorfris, s.l.

- MARKA GUZTIAK
- 24 OREKUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- BITESSIA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 - ALGORTA

Clara Pujalte > aktorea

“Asko hazi behar dugu, baina baldintza eta aukera asko dago, egun, lan egiteko”

Clara Pujalte eta Irene Panera getxoztarrak, Debora Nogalesek eta Cristina Sotok osatzen dute Dispar antzerki taldea. Orain hiru urte sortu zuten eta arnasa hartzeko betarik ere ez dute izan. Azken ekimena, *Inside Maps*, alemaniar eta italiar lagunakaz garatu zuten abuztutik urrira. Pujaltegaz berba egin dugu.



Urte bi daroaz Clara Pujaltek Alemanian, beti ere antzerkiari lotuta

—Dispar antzerki taldeko kide zara eta urte bi daroazu Alemanian, antzerkiaren arloan aritzeko beka batez; beste artean, *Inside Maps* egitasmoan parte hartu duzue Disparregaz.

—Europako Boluntariotza Zerbitzuaren beka joan nintzen Alemaniara. Antzerkiaren arloan lanean ibili nintzen kultur elkarte batean, eta harremanak egiten hasi nintzen. Toki askotako jendea dago Berlinen eta jende asko ezagutu nuen. Horietako batzuek elkarlanean garatu dugu *Inside Maps* proiektua, alemaniarrekaz eta italiarrekaz; azken horien ideia izan zen. Ez da antzerkia, bideoa da, erakusketa ibiltaria. Italiarrek bideo-jaialdia antolatu ohi dute, gure ingurua ez-ohiko moduan esploratzeagaz lotuta dago. Bilbon zerbait egiteko proposatu zidaten eta abuztuan etorri ziren denak.

—Zehazki, zer egin zenuten?

—Disparrekook logistikaz arduratu ginen, gauza teknikoak eta lotarako tokiak zein otorduak... lotzeaz, 25 lagun etorri ziren eta. Eta besteek garatu zuten bideo egitasmoa. Bilboko lau gune grabatu zituzten ordu betez. Beraiek aukeratu zituzten, ordura arte ez zuten hiria ezagutzen. Guztien arteko muntaia egin zuten eta horixe erakutsi genuen abuz-

tuan, Potsdameko (Alemania) eta Polignano A Mareko (Italia) muntaiakaz batera. Bilbon hasi zen erakusketa, Italiako jaialdira eta Alemaniara eroan genuen ondoren, eta urrian amaitu genuen.

—Antzerkiagaz zerikusi handirik ez dauka, ordea.

—Ez, ez. Erakusketa ibiltaria izan da, bideo, argazkilaritza, antzerkia, musika

—Oraintsu zertan zabilzate?

—Orain egiten baino, pentsatzen gabilza. Hainbat egitasmo daukagu buruan. *Inside maps* Bilboko l-mono lokalean egin genuen. Algortan bizi nintzenez Olaf Kehlerregaz egin nuen hainbat gauza, l-monokoa da. Bera garatzen dabilen proiektu batean parte hartuko du Dispar antzerki taldeak. *Inside Maps*-en garatu genuen ideia

edota pintura tailerrak egin ditugu.

—Beraz, asko eman dizue lan horrek?

—Egin dugun lanik handiena izan da *Inside Maps*. Bilbora 25 lagun ekarri dugu, logistika, antolaketa eta kudeaketa aldetik asko ikasi dugu. Alde artistikoari dagokionez ere, ikus-entzunezko muntaiak txunditu gaitu.

beretsuagaz lan egiten du Kehlerrek, *site specific art* delakoa, eta ikerketa lan horregaz jarraituko dugu aurrean. Arte lerro horretan lan asko egiten hasi naiz, gaurkotasunagaz oso lotuta dagoela uste dut, garapen prozesuan baikabiltza unero. Ikerketa lerro honi oso interesgarria deritzot. Ikusentzuleak hartu-emanen-

rako tartea eskaintzen du; antzezleen eta ikusleen arteko hesia apurtzeko aukera dakar.

—Diozuenek, jendarteari eragiten dioten gaiak lantzen dituzue, ikuspegi kritikotik.

—OVNISS egitasmoarako idatzi genuen hori, komedia oso-oso kritikoa zen; eta guztia kritikatu genuen. Hots, pertsonak objektu moduan tratatzeko gaia landu genuen: emakumeak objektutzat tratatzea, lantokian ere objektutzat tratatua izatea... Lorcarri buruzko proiektua garatu genuen ondoren, *Lo que Lorca se llevó* deritzo; lan oso interesgarria da Lorcak egindakoa, oso kritikoa. Lehen aipatu ikusleekiko distantziaren gaia ere landu zuen. *Inside Maps* ere inguruagaz lan oso kritikoa izan da. Asko garatu behar da, ordea, gai horretan hasibariak garelako.

—Bestalde, lengoia artistikoak nahasteko interesa ere badaukazue.

—Antzerkiko hiru lagun eta Arte Ederretako beste bat gara, bideoagaz, zuzeneko musikagaz... lan egitea gustuko dugu; zenbat eta diziplina handiagoa, orduan eta aberatsago.

—Taldea gaztea izan arren, 2007an

ko batez ere. Baina asko hazi behar dugu oraindino; eta gainera, gaur egun baldintza eta aukera asko dago lan egiteko. Ez dugu konpainia erraldoia izan gura, ez da gure helburua. Nazioarteko taldeakaz hartu-eman gustuko dugu, lerro horretan jarraituko dugu.

—Eta Clarak, zehazki zer egingo du?

“Ez dugu konpainia erraldoia izan gura, ez da gure helburua; nazioarteko taldeakaz hartu-eman gustuko dugu”

sortu zenuten Dispar, lotu barik zabilzate. Hainbat jaialditan parte hartu duzue dagoeneko, Euskal Herrian eta bertatik kanpo, eta zenbaitetan, antolatzaileek gonbidatuta.

—Jendea harritzen da, gauza asko egiten gabilzala dio. Guk ere uste dugu aukera asko izan dugula, horren gazte izate-

—Disparren amatasun bajaran gabilza uneotan. Bestalde, hona urtebete bueltatzea pentsatzen nabil, ikasteko eta espezializatzeko; hartara, amatasun baxa lasai egiteko aukera egongo da. 2011rako beste egitasmo batzuk daukagu eskuartean, baina horiek hurrengo elkarrizketarako gordeko ditut. ○



adi lagun!

Otsailaren **15etik** aurrera pasatuko dizugu urteroko harpidetza kuota.

• edozein argibidetarako deitu telefono honetara: 94 491 13 37

“Amak Satistegitik ikusi eban itsasoa lehenengo aldiz”



“Gauza askotarako aukera ematen dauen lekua izan da beti niretzako Satistegi”

Asko ibili izan gara etxekook beti Satistegi inguruan jolasean, paseoan, berbetan... alde hori jendez beteta egoten zan beti, eta herriko gauza garrantzitsu asko gertatzen ziran han. Txikitan Kasinoko plazatik Txoposetara ibiltzen ginan ahizpa eta biok, lagunakaz beti olgetan... auzoko ume guztiok batera, alkarregaz, bertatik hara eta hona.

Gauza askotarako aukera ematen dauen lekua izan da beti niretzako Satistegi, itsasoari eta Serantesi begira parateko, ilunabar ederrak ikusteko, pentsati, isilik edo jendeagaz solasean,...esate baterako, hantxe kontatu eustan gure amak bertatik ikusi eba-

berak lehenengo aldiz itsasoa, Algortara etorri barritan, eta kontatu eustanetik, horixe da Satistegiri lotuta betiko geratu jatana.

Kontua da ama Arabako herri txiki-txiki batekoa dala, eta bere izeko Petraren “Tangora” jatetxera etorri zala beharrera, oso gaztea zalarik. Bertan dena zan arrotza, herria, jendea, lana... eta izeko Blanquik, amaren ahizpak paseoan eroan eban gure ama lehenengo egunean, Satistegi aldera... Bertan ikusi eban amak lehenengo aldiz itsasoa eta esan eustan gogoan gordeta deukola une hori, ezin eutsolako toki barri horri begirik kendu, iltzatuta lez geratu zala

han, Satistegin, sorginduta, eta bertara joaten zala askotan, herrimina pixka bat arintzearen-edo, hain ederra zan toki hori! Egun batean konturatu zan bizileku berrian oso pozik egoela, itsasoagaz guztiz maiteminduta, eta pentsa... bisitan baino ez da itzuli bere herrira, maite-maite dauen arren! Beharbada horregatik, Satistegiz asko esan neike, baina zeozer esan behar badot horixe da, igarotzen naizenean gogoratzen dodala zelan gustau jatan amaren istoriotxua entzutea, eta apurtxu bat hunkitzen naz beti, gure amak bertatik ikusi ebalako lehenengo aldiz itsasoa, hamazazpi urte zituela. ○

Solaetxe Jatetxea

Gune berean aukera gozo bi



Koldo Cortazar Solaetxen

Leku berean lagun artean entsalada eta oilaskoa jateko, zein goi mailako sukaldaritzako proposamenak dastatzeko aukera. Hori da, Leioako Solaetxe Jatetxeak eskaintzen duena. Orain 20 urte Sola Goikolea anaiak jarri zuten martxan jatetxea; 2005ean Kortasariena S.L. sozietatea sortu eta Koldo Cortazarrek zuzendaritza hartu zuen, bere aurrekoen ildo beretik jarraitzeko asmoz.

Talde handian zein txikian bazkaldu eta afaltzeko eta ospakizun bereziak antolatzeko aukera ematen du Solaetxeak azpiegiturak; izan ere, jatetxea hartzen duen baserria, txokoa eta oilasko erretegia hartzen duten karpa erraldoiak izateaz gain, kanpoko mahaiak, parking handia eta umeentzako jolas gunea dauka.

Jatetxean lehenengo freskoak erabiltzen dituzte; eguneko menuak eta menu berezietan gain, hasierakoak, arrain haragai eta postre landuak dituzte: arrain zopa, otarrainxkak plantxan, ahate bularkia sagar konpotagaz, txuleta, pantxineta e.a.. Indaba jana egiteko aukera ere badago, gura izanez gero. ONCE erakundeagaz elkarlanean egindako beharrari esker, bezeroentzako karta brailen eskuratu daiteke, itsuek zer aukeratu erabaki dezaten inongo oztupo barik.

Aukera merkeagoa gura duenarentzat, oilasko erretegia urte osoan dago zabalik; neguan asteburuetan bakarrik. 160 lagunentzako lekua dauka eta garga-dotege menua eskaintzen du. ○

Sarriena auzoa 166, LEIOA
Tf. 94 463 24 87

ARTAZA ETXEA
JATETXEA

- gosariak
- txuletoia • bakailoa
- arrain freskoa

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz
Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Etxakina. Gobeia erakundearen auzoa • LEIOA

JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria

ARTESANA

LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA

KONTXI

ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaitan!!

Alangobarri 10, ALGORTA

GOZOLABEA

GALDARETXE

- Maidagan 35, GETXO Tf. 94 491 11 25
- Mayor 17, AREETA Tf. 94 464 77 29
- Sabino Arana 67, LEIOA Tf. 94 464 40 58
- Telleche 11, ALGORTA Tf. 94 460 32 14
- Sabino Arana 9, SOPELA Tf. 94 676 11 01

Toponimoa > Satistegi

Satistegi (aurkintza):

Nahiz eta leku honen izen oso eta egokia Saratistegi zela argi eta garbi egon, ez dirudi atzera jotzerik dagoenik Satistegi aldaera laburtuak hartu duen hedadura dela eta. 1933an Maria Muñoz andreak Satistegi mendian txurrodenda jartzeko baimena eskatu zuen eta udalak ukatu egin zion, jartzekotan, Portu Zaharrean izan behar zela argudiatuz. Egun plaza izendatzeko erabili arren, antzina aldapa osoa izendatzen zuen, ia Ereagaraino.

BASALBO BASERRIA

JATETXEA

Tf./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO


basalbo@basalbobaserria.com



ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Anlizte z.g. • TLA Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

María Jesús
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
Alangobarri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA **HARTU TXANDA**

GOIZEAN
"Gozoki eta prentsa, gubi denik ez pentsa"
Prentsa - Frutu lehorak - Aldizkariak - Licentziarik
Orduña Mendatea 1 Telfax 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

Usategi kafetegia

Usategi parkea z.g.
Algorta
*Tf. erroreak: 94 460 64 13

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Utebako gertaera batek lur jota utziko zaitu, hala ere, ez duzu horren eragina luzaroan pairatuko. Sustoa baino ez. Diru iturri barri posible bat topa dezakezu, adi egon.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Osasun aldetik ez bazara ondo sentitzen, kirola egiteko beharrik izango da. Gorputza ez dago jateko eta lo egiteko bakarrik. Mugitu ipurdi hori!

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Erabakiak hartzerakoan ez duzu beldurrik eduki behar. Baina ez ahaztu zerbait txarto badoa, inguruko baten bat pozuko zaizula.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Harreman gehienek lokarriak dakartzatela jakin behar zenuke. Zure nortasuna eta izaera horretara moldatzea komeni zaizu, beti bakarrik ibiltzea ez zaizu komeni.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Oso apal eta larri sentituko zara egunotan. Ez ahaztu mundua egoera eta leku barriz beteta dagoela. Oraindino badago ikusi eta bizitzeko asko, interneten daukazu aukera pila.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Osasun aldetik ondo bazabiltza ere, kontuz lan gehiegi egiteagaz. Gauzak pilaizten bazaizkizu, lasaitasunez hartu eta zure ahalmenen arabera antolatu, hobeto biziko zara eta.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Diruagaz arazorik izango ez baduzu ere, suertatuko zaizun negozio posible batez arretaz ibili; zeure interesen aurkako bihur dakizuke. Zabal itzazu begiak.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Proiektu barri bat aurrera eroateko unea egokia duzu. Gauza zurrak da, ahalegin eta interes guztia norabide horretan zuzenduz gero, lortuko duzu gura zuzena.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Zorioneko sasoiak datorkizu. Luzaroan desiratutakoa beteko da eta lagunak eta senideak primeran moldatuko zara. Unea aprobetxatu besterik ez duzu egin behar.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Adinak benetan zer esan gura duen erregabe galdetzen diozu zeure buruari. Kontu horiek alde batera utzi eta denborarik ez galdu, denbora azkar batean doa eta!

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Zure osasun egoera ez da larria, baina elikadura gehiago zaindu behar zenuke. Barazki eta fruta gehiago jateak ez dio inori kalterik egiten. Txuleta gutxiago, mesedez.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Zure maitaleagaz harremanak tentsioaldi batean daude, baina oraindino ez duzue zertan larritu. Berba eginda gauza asko konpontzen direla kontuan izan, eta bestea ulertzen ahalegin zaitetz.



Koskakideak behar ditugu
irratia aurrera jarrai dezan!!

Izena..... Deiturak..... Herria.....
E-mail..... Telefonoa.....
Kontu zenbakia (20 digito)
□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□




12€ urtean
€1 hilean !!

koskairratia@koskairratia.com
k/ Ameztli 6 4.pisua 2. dep.
Algorta (Bizkaia)
www.koskairratia.com

Bidali zure datuak
posta elektronikoko edo
posta arrunt bidez

KOSKA
irratia 108 FM

IRUDI GURUTZATUAK



ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Getxoko zein aktorek hartu du parte udabarrian estreinatuko den *Dragoi ehiztaria* filmean?

> Aurrekoaren erantzuna: Zureak egin du
> Irabazlea: **Ez da egon irabazlerik***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Euritik babesteko zein tresna agertzen da 26 eta 27 orrietan?

- **Flotagailua**
- **Aterkia**
- **Arkatza**

> Aurrekoaren erantzuna: Maialen Lujanbio
> Irabazlea: **Ander Sarasketa***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA **Usategi**
kafetegia

Usategi parkea z.g. Algorta
Tf. erreserbak: 94 460 64 13



SARIA **La Gusana**
liburudenda

Tellagorri plaza, Algorta
Tf. 94 491 14 12

lagusana

Bidalari erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



M^o TEPE MARDARASEK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

AREETAKO PARROKIAKO HAUR KANTARIAK, 1943

Inazio Isasmendi abade arrasatearrak sortu zuen, bost urte edo iraun zuen koru hau, Areetako Mesedetako Ama elizan kantatzeko. Korukide guztiak (8-12 urte artekoak), Romoko Santa Eugenia eskoletan zebiltzan; erromotarrak ziren, beraz, eta ez areetarrak haur kantari edo tiple hauek. Bestalde, Areetako eliza hau oraindino ez zegoen berreraikita (urte batzuk lehenago gerran suntsituta, 1947an inauguratu zen) eta, horregatik, gaurko Andres Isasi Musika Eskolak urte batzuetan parrokiaren funtzioa bete zuen. Hori dela eta, argazkia Musika Eskolaren aurrealdean aterata dago, bertan kantatzen zutelako domekaro Meza Nagusian urte osoan zehar. Abade hau Areetatik beste leku batera aldatu zutenean, desegin zen korua. ○

Atzekoak: Manuel Argueso, Antonio Gimbel (GB), Santiago Urquijo, Pedro Luis Raton (GB), Luis M^o Trueba, Fernando Guraya (GB), Jose Luis Irueta, Carmelo Erecacho, Daniel Martin.

Aurrekoak: Javier Raton (GB), Jon Amezaga, Luis Ciordia, Fermin Camba (GB), Jose Antonio Elorza (GB), Javier Burgoa (GB), Jose Ramon Erecacho (GB), Jose Doval (GB), Jose Pazos (GB).

[aitormenak]

XABIER PERURENA > aktorea

“Harategian 11 urterekin hasi nintzen laguntzen, uda partean”

Testua: **Zuberoa Iturburu** Argazkia: **EITB**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Gogo daukan mutil gaztea, ilusio handikoa eta inpaziente samarra.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Nire perfilak uste dut ematen duela akziozko filma baterako, poliziakoa edo, baina amodioari buruzkoa ere ez legoke gaizki.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?

Baina aurrena jakin behar da zer naizen. Harakina naiz, aktore lanetan hasi berria; ez dakit esan daitekeen aktore naizenik. Aktore izateko lan gehiago egin behar da.

Txikitan zer izan gura zenuen?

Harakina, 11 urterekin hasi nintzen harategian laguntzen, uda partean.

Badaukazu ohitura txarren bat?

Asko. Adibidez, parranda asko egitea, eta zigarro asko ere erretzen dut.

Beraz, aitor dezakezun bizio bat?

Horixe, zigarroak. Oso gazte hasi nintzen eta ez dut uzten.

Eguna ala gaua?

Eguna, gauzak alaiago ikusten direlako.

Zerk ematen dizu beldurra?

Etxean bakarrik egoteak.

Zein da zure ametsetako bat?

Pelikularen batean parte hartzea, edo daukadana mantentzea.

Zer gabe ezin zaitezke bizi?

Lanik gabe eta familiaren maitasunik gabe.

Parrandarik politenak non?

Parranderoa naiz eta Euskal Herriko toki gehienetan ongi pasa dut.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?

Leitza. Ez naiz asko atera Leitzatik, egia esan. Txikitatik honetara ohitu naiz eta kariño handia diot. ○

LABURREAN— *Goenkale* telesaileko aktore barrietakoa dugu Xabier Perurena, 22 urteko leitzarra. Harakina ogi-bidez, aspaldi zeukan antzerkirako zaletasuna, baina duela urte eta erdi erabaki zuen lan horretan saiatzea. Madrileran joan zen aurrena, eta *Yo soy Bea* telesaileko atal batean parte hartu zuen. Baina bere burua prestatu behar zuela konturatu eta gure eskualdera etorri zen; Getxoko antzerki eskolan ibili zen hilabete batzuetan. *Goenkaleko* probetara aurkeztu eta hara!, bertan ikus dezakegu orain astero, Ibon pertsonariari bizitza ematen. Pozik dago, ondo baino hobeto zaintzen ei dute. Hemendik aurrera, Iñaki, haren aitak, langile barria bilatu behar-ko ote du harategirako?

Unibertsitateko Aisia Kulturala

Getxo

2009 - 2010 Ikasturtea // 2. seihilekoa

IKASTAROA:

EUSKAL LITERATURAREN TESTUAK ETA KONTESTUAK

Irakaslea: Xabier Monasterio

Lekua: Algortako Kultur Etxea (Villamonte)

Ordutegia: 19:00-20:30 (astearteetan)

Egutegia:

Otsaila	16, 23
Martxoa	2, 9, 16, 23
Apirila	13, 20, 27
Maiatza	4

Eta gainera...

- **Figuración y abstracción en el S. XX // Irakaslea:** Ricardo Aldama
otsailaren 16tik maiatzaren 4ra (astearteetan, 17:00etatik 18:30era)
- **Música y filosofía: Recorrido por el pensamiento musical de los grandes filósofos y por la música que los inspiró // Irakaslea:** Iñaki Moreno
otsailaren 18tik maiatzaren 6ra (ostegunetan, 17:00etatik 18:30era)
- **Ideologías contemporáneas: Liberales, conservadores, socialistas en la España de los siglos XIX y XX // Irakaslea:** Esteban Goti
otsailaren 18tik maiatzaren 6ra (ostegunetan, 19:00etatik 20:30era)

INFORMAZIO GEHIAGO: Algortako Kultur Etxea (Villamonte, A-8) // Tel.: 94 491 40 80



URTERO 20€

Harpidetu
eta jaso UK
zure etxean,
hamabostero.
Urtero 20 euro.

Urtero UK aldizkariaren 20 zenbaki.
Urtero Uribe Kostan gertatzen denaren berri.
Urtero eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean.
Urtero argazki zahar eta barriak.
Urtero zure proiektuak lau haizetara.
Urtero 20 euro.



neuk ere gura dot

